

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea (UPV/EHU)

Donostia

Zuzenbide Gradua

2023-2024 ikasturtea

**KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HAUTAKETA-SISTEMAREN
AZTERKETA KRITIKOA AUTONOMIA ERKIDEGOEN
PARTE-HARTZEAREN IKUSPEGITIK**

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea

Leire Iturralde Belaunzaran

Zuzendaria

Maite Zelaia Garagarza

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN EGUNGO ARAUZKO SISTEMAREN DISEINUA: HAUTAKETA-SISTEMARI HURBILPENA.....	6
2.1. PLANTEAMENDUA.....	6
2.2. INSPIRAZIO-ITURRIAK.....	8
2.2.1. AURREKARI HISTORIKOAK ESPAINIAR ZUZENBIDEAN.....	9
2.2.2. INSPIRAZIO-ITURRIAK ZUZENBIDE KONPARATUAN.....	11
2.3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN MARKO JURIDIKOAREN EGUNGO FORMULAZIOA.....	13
2.3.1. EGITURAZKO PLANTEAMENDUA: ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 159. ARTIKULUAREN ETA KONSTITUZIO AUZITEGIKO LEGE ORGANIKOAREN 16. ARTIKULUA.....	13
2.3.2. ORDENAMENDU JURIDIKOAK AURREIKUSTEN DUEN HAUTAKETA-SISTEMAREN ALDERDI NAGUSIAK.....	14
3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HAUTAKETA-SISTEMA ETA LURRALDE BANAKETAREN INGURUKO FUNTZIOEN ARTEKO LOTURA.....	19
3.1. PLANTEAMENDUA.....	19
3.2. ESPAINIAR ORDENAMENDU JURIDIKOAK AURREIKUSTEN DUEN BERME-MEKANISMOAK KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HAUTAKETA-SISTEMARI DAGOKIONEAN.....	21
3.3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO HARREMANA.....	27
3.3.1. AUTONOMIA ERKIDEGOEN PARTE-HARTZEA HAUTAKETA-SISTEMAN ETA HARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA KONSTITUZIONALA.....	30
3.3.1.1. Konstituzio Auzitegiko Lege Organikoaren 6/2007 Erreforma Autonomia Erkidegoen ordezkaritza bermatzeko.....	30
3.3.1.2. Konstituzio Auzitegiaren 49/2008 eta 101/2008 Epaiak.....	33
3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoaren paradigma.....	36
4. HAUTAKETA-SISTEMAREN ALDERDI GATAZKATSUENAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN PARTE-HARTZEAREN IKUSPEGITIK.....	37
4.1. MAGISTRATUEN JATORRIA: ESTATUKO HIRU BOTEREEN ERAGINA....	38
4.2. KONSTITUZIO AUZITEGIA OSATZEN DUTEN KIDE-KOPURUA.....	41
4.3. MAGISTRATUEN HAUTAKETAN ATZERAPENA.....	42
5. ONDORIOAK.....	45
6. BIBLIOGRAFIA.....	49

AAEE Autonomia Erkidegoak

AE Autonomia Estatutua

BJKO Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

EK Espainiako Konstituzioa

KA Konstituzio Auzitegia

KAE Konstituzio Auzitegiaren Epaia

KALO Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa

OEEE Oinarrizko Eskubideak

1. SARRERA

Espainiar Estatuko demokraziaren lehenengo urteekin alderatuz, gaur egungo errealitate politiko eta juridikoa erabat desberdina dela antzeman daiteke, bertako sistema juridiko-konstituzionalean ahultze bat sumatu delarik. Beste hitzetan, denbora batetik hona eman den giro politikoaren pixkanakako gogortzeak, hainbat konfrontazio-egoera direla medio, mota askotako ondorio nabariak ekarri ditu, eta horiek ez dira bakarrik politikan eman, testuinguru juridikoan ere igarri dira, hertsiki loturik dauden heinean.

Hala, erronka hau gidalerro izanik, eta, horren inguruan Estatuko organo konstituzional ezberdinek izan dezaketen erantzukizuna aztertzeko asmotan, Gradu Amaierako Lan hau KAren azterketara bideratuko da. Izan ere, azken urtetan, eztabaidagai errepikaria izan da KAren etengabeko ospe galera, eta, denbora pasa ahala, erakunde honen inguruko pertzepzio negatiboa garatzen doa. Horren ondorioz, haren egitekoen eta funtzionamendu arrunten balioa murriztu dela pentsa daiteke, pairatzen ari diren situazio politiko nahasi eta ezegonkorrak zuzenean eragiten baitiote. Egoera honek eragin zuzena izan du gizarteak eta interes publikoak haren erabakiak nola jasotzen dutenaren inguruan, adibidez, haren epaien devaluazioan.

Hasiera batean, KAren konposizio organikoa eta aukeraketa-sistemaren eraentza juridikoa aztertuko bazen ere, lana garatzen joan ahala, abiapuntu horri AAEEen parte-hartzearen egoera txertatu zitzaion. Horrela, haren konposizio organikoa, ordenamendu juridikoak aurreikusten duen hautaketa-sistema eta haren inguruan AAEEK duten parte-hartzea izango dira aztergai, betiere, perspektiba kritiko batetik.

Jakina denez, KA erabakigarria izan den erakunde bat da Espainiako Estatuaren estatu-eredua definitzeko, batez ere lehen urteei dagokienean; izan ere, Testu Nagusiak esleitu zizkion beste eskumenen artean, Autonomien Estatuak markatu zuen deszentralizazio-prozesua sendotzen lagundu zuen urte haietan luzaturiko jurisprudentzia eta doktrina konstituzionalarekin.

Baina, gaur egungo egoera beste bat izanik, lan honetan KAren sinesgarritasun eta legitimitate falta horren atzean egon daitezkeen faktoreak aztertuko ditugu, betiere

AAEEn ikuspegitik. Horien artean, ezberdindu daitekeenak, eta, ondorioz, lan honetan azalduko direnak, magistratuen aukeraketa-prozesuko berandutzea, proposamenen inguruan ematen diren azpi-banaketak eta politizazio kutsua eta AAEEkiko eskumenen higadurak daude, besteak beste.

Aipaturiko guztiagatik, etengabeko gatazka politiko honek sortu gatazka juridiko sortu duela esan dezakegu eta, hori kontuan izanik, lan honen xedea KAn AAEEk dute parte-hartzea aztertzea izango da, betiere hautaketa-sistemaren kontzeptu horri helduz. Modu honetan, Estatuko eta AAEEtako ordenamendu juridikoak uztartuko dira, baita Zuzenbide konparatua maila arinago batean, ikuspuntu ezberdinak jorratuz. Izan ere, Zuzenbide graduan ikusten diren eta gure egunerokotasunean jasotzen ditugun informazio eta albisteak hobeto ulertzeko jakin-minak bideraturik, Gradu Amaierako Lan honen gaia aukeratu genuen, hautaketa-sistemaren arazoaz gain, AAEEren esku-hartzea ere aztertuz.

Zehaztutako helburu hori betetzeko erabili den metodologia juridikoa izan da. Hala, lehenik, oinarri bezala Estatuko arauak hartu dira, horien artean, presentzia berezia izango dutelarik EK-k eta KALOk. Era berean, aipaturikoei laguntzeko, doktrina konstituzionalaren iritzia ezinbestekoa suertatu zaigu, baita KAREN jurisprudentzia konstituzionala ere, besteen artean. Laburbilduz, hauek denak aztertuz eta uztartuz burutu da jarraian azaltzen den analisi kritikoa.

Horiez gain, azken ondorioetara ailegatzeko lanaren egitura atal ezberdinetan banatu da. Hala, gaur egungo KA ezartzeko konstituziogileari baliagarri izan zitzaizkion inspirazio-iturriak (aurrekari historikoak eta Zuzenbide konparatua) espainiar ordenamendu juridikoak aurreikusten duten hautaketa-sistemaren eraentza juridiko orokorra, KAREN funtzioak lurralde-ordezkaritzaren ikuspuntutik landuko dira. Eta, horiei amaiera aldera analisi kritiko eta ondorioa eta proposamen batzuk gehituko zaizkie.

Aipaturiko guztia aintzat izanik, hurrengo bi galdera izango dugu ardatz lan osoan zehar: KAK dituen helburuak betetzeko egokia al da ordenamendu juridikoak aurreikusten egitura- eta hautaketa-sistema? Eta, horri dagokionez, AAEEk parte-hartze nahikoa al dute?

2. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN EGUNGO ARAUZKO SISTEMAREN DISEINUA: HAUTAKETA-SISTEMARI HURBILPENA

Jarraian garatuko den puntu honetan, KAren gaur egungo hautaketa-sistemari hurbilpen bat egingo zaio. Horretarako, esparru ezberdinak arakatuko dira, aurrekari historiko eta Zuzenbide konparatua erreparatuko bezalakoak. Horrez gain, segidan, egun espainiar ordenamendu juridikoak aurreikusten duen arauzko sistemaren diseinua ere aztertuko da. Izan ere, analisi kritiko bat egiteko iragana eta orainaren nondik norakoak ulertzea beharrezkoa dela ikusten da.

2.1. PLANTEAMENDUA

1978ko Konstituzioaren 1.1 artikulua Espainia Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoa dela jasotzen du¹. Hala, estatu eredu hori babestu eta bermatzeko ideiarekin konstituziogileak jurisdikzio konstituzionala ezartzea erabaki zuen², KA sortuz funtzio hori egikaritzeko. Honekin batera, Testu Nagusiak Estatuko egoera juridiko-instituzionalean zenbat aldaketa ekarri zituen, Trantsizio garaian Frankismoaren ideologiarekin hautsi zenaren adierazle moduan elementu berritzaile batzuk txertatuaz: monarkia, bi ganberako sistema parlamentarioa eta Botere Judizial bakarra bezalakoak, besteak beste. Edonola ere, esanguratsuenetakoak Autonomien Estatuaren planteamendu deszentralizatu eta Konstituzio Auzitegiaren sorrera izan daitezke³.

KAren eraentza juridikoa gauzatzekoan, EKren garatze-prozesuan konstituziogileak haren zirriborroan eta baita aurreproiektuan zuen ideia matendu zuen: Auzitegiari titulu

¹Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa), *LEGEAK-LEYES* bildumatik(UPV/EHU).

²FOSSAS ESPADALER, Enric, “Título IX, del Tribunal Constitucional, artículo 159”, PÉREZ TREMPES, Pablo, SAIZ ARNAIZ, Alejandro (Zuz.), *Comentario a la Constitución Española*, 40 Aniversario, Tomo II (Artículo 97 a Disposición Final), Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 2158. or.

³PÉREZ TREMPES, Pablo, “Tribunal Constitucional y Poder Judicial”, *Teoría y Realidad Constitucional*, 8-9. zk., 2001-2002, 7. or.

propio bat eskaintzea. Gerora, erakundeari esleituko zitzaiena IX. Titulua izango zen eta, hau, 159. artikulutik 165. artikulura bitarte luzatzen da⁴.

Hala, planteamendu honek jada badakar beste estatu batzuetan egin zenarekiko desberdintasuna; izan ere, Auzitegiaren eraentza juridikoa ez zen EKren VI. Tituluan (Botere Judizialari buruzkoa) ezta X. Tituluan (Konstituzio Erreformari buruzkoa) txertatu beste herrialdeetako Arau Gorenek batzuk egin zuten bezala, baizik eta aparteko atal oso bat dedikatu zitzaion. Bitxikeri gisa, esan, badaudela Auzitegiari buruzko aipamen batzuk testu guztian zehar, 53.1, 95.2, 123, 153. artikuluetan bezala. Halaber, EK-k, ez du organoaren definiziorik jasotzen, ez hari eskaintako atalean ezta beste batean ere; hori, aldiz, KALOk 1. artikuluan azaltzen da, hau Testuaren interpretetik goren dela esaten duenean⁵.

Modu honetan, EK KAREN antolamenduarekin eta funtzionamenduarekin lotutako gaiak arautzean zentratzen da, hala nola: hautaketa-sistema, epaileen estatutu pertsonala eta hamabi kideen agintaldiaren iraupena, bere epaien ondorioak ezagutzeko eskumena duen prozeduren zerrenda eta abar. Baina, definizioaz gain, gai horiek lege organiko batera igortzen ditu Konstituzioak berak, zehaztu eta garatu daitezke⁶.

Era berean, Testu Nagusiaren 161. artikulua KAREN inguruan arautzen duene heinean, hau organo konstituzional bihurtzen du. Gauzak horrela, egun Espainiako konstituzionalitatea ulertzen den moduan, Auzitegia espainiar Estatuaren formaren elementu beharrezko eta ukaezina da; eta, horren ondorioz, hura desagertzeak edo aldatzeak Estatua bera aldatzea ekarriko luke⁷. Hori dela eta, esan daiteke EK-k *estatus* moduko bat aitortzen diola Auzitegiari, organo jurisdikzional-konstituzional gisa eratu. Era berean, aipatu KALOREN 1. artikulua xedatzen duen moduan, ordenari dagokionez bakarra dela eta gainerako botereekiko independentzia duela, baita Botere Judizialarekiko ere; izan ere, EKren eta KALOREN mende baino ez dago.

⁴FOSSAS ESPADALER, *op.cit.*, 2157. or.

⁵Lege Organikoa 2/1979, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa (EBO 239 zkia., 1979ko urriaren 5koa).

⁶VIDAL FUEYO, María del Camino, *El Tribunal Constitucional*, Marcial Pons, Madril, 2022, 21 or.

⁷PÉREZ TREMPES, *op. cit.*, 7. or.

2.2. INSPIRAZIO-ITURRIAK

Espainiako KAren diseinuan begirada jarriz, agerikoa da aurretiazko ereduek eragina izan dutela beronen diseinuan. Hala, EK ordenamendu juridikoaren norma juridiko gorenaren izanik, ezinbestekoa da prozedura batzuk ezartzea, botere publikoek, baina baita partikularrek ere, izan ditzaketen mehatxuei aurre egiteko⁸. Hala, EKren 9.1 artikulua herritarrak eta botere publikoak EKren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende egongo direla xedatzen du.

Arau Gorenaren eraginkortasun juridikoa defendatzeko eginkizuna organo konstituzional baten esku uztea logikoa da optika juridiko batetik behatuz; baina, betiere, haren independentziari eta jurisdikzio-ahala egikaritzea ahalbideten dion normari men eginez. Gauzak horrela, bi premisa horietatik abiatuta sortu eta garatu ziren justizia konstituzionalaren bi eredu klasikoak, jurisdikzio difusoaren sistema eta jurisdikzio kontzentratuaren sistema dira. Esan bezala, hauek legeen konstituzionaltasunaren kontrol judizialerako sistema bat ezartzera bideratuak daude⁹. Izan ere, justizia konstituzionala EKren berme jurisdikzionaltzat hartzen badugu, ezinezkoa da zentzu juridiko-formalean Konstituzioaren jabetzaz mintzatea; hau ordenamendu juridiko bateko arau goren gisa hartuta, arauzkotasun eta nagusitasun horren bermearen funtsezko elementua faltako litzateke¹⁰.

Aipatu dugun lehen sistema, jurisdikzio difusoarena, Ameriketako Estatu Batuetan eman zen Gorte Gorenak, XIX. mendean, 1803. urtean hain zuzen, *Marbury vs. Madison*¹¹ auzian emandako epai garrantzitsuan oinarriturik dago. Epai horretan, Gorte

⁸VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 17-19 or.

⁹*Idem.*

¹⁰DÍAZ REVORIO, Francisco Javier, “El Tribunal Constitucional (I). Composición y Organización”, LÓPEZ GUERRA, Luís, ESPÍN TEMPLADO, Eduardo. (Zuz.), *Manual de Derecho Constitucional, Volumen II, La Organización de los Poderes, Estado y Comunidades Autónomas*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2022, 205-206 or.

¹¹Beste hitzetan esanda, Ameriketako Estatu Batuetako 1787ko Konstituzioak ez zion inongo organori esleitzen legeen konstituzionaltasuna kontrolatzeko ahalmena. Horren harira, Auzitegi Goreneko kideak zen John Marshall epaileak lehen aldiz lege bat aplikazina zela ebatzi zuen, konstituzioaren aurkakotzat jo baitzuen.

Gauzak horrela, esan daiteke historikoki konstituzionalismoaren erabaki garrantzitsuenetako bat dela hau; izan ere, *judicial review* edo legeen konstituzionaltasunaren kontrol difusoaren sorrera dakar. Eta, ikusi dugun moduan, horren arabera epaile eta auzitegi guztiek, botere independente gisa, epaitutakoa epaitzeko eta betearazteko zeregin arruntean, ezin izango dute konstituzioaren aurkakotzat jotzen duten lege bat aplikatu.

Goreneko epaile batek arrazoitu zuen Konstituzioaren aurkako lege bat aurkitu ezker, ezinezkoa izango dela lege hori aplikatzea; izan ere, beste aukera Konstituzioa alde batetara uztea litzateke eta, hori, ezinezkotzat jotzen da hau ordenamendu juridikoko arau gorena den heinean¹².

Bestalde, XX. mendeko Europan¹³, legeen konstituzionaltasunaren kontrol judizialaren beste eredu bat garatu zen Kelsen legelariaren eskutik, Hain justu ere, 1920ko Austriako Konstituzioan txertatu zen lehen aldiz justizia konstituzionalaren sistema kontzentratua. Estatu Batuetako sistemarekiko funtsezko aldaketak dituelarik, Kelsenen iritziz legeen konstituzionalitate kontrola egiteko eskumena auzitegi bakar batek izango du, KA¹⁴ alegia. Hau da Espainiako 1931ko eta 1978ko Konstituzioetan jasotzen den eredu¹⁵.

Beraz, Europako korrante konstituzionalari jarraiki, Espainiako historia juridiko-konstituzionalean Arau Gorenaren inguruko erabakiak hartzeko, XIX. mendean kontrol difusoa ezartzeko saiakerak egon baziren ere, konstituzionalitate kontzentratua egikaritzen zuten legegile negatiboak izan dira birritan aurrera atera direnak (eta, ondorioz, ez proiektu huts batean gelditu). Beste era batera esanda, erakunde espresuak sortu eta ezarri dira konstituziokotasun kontrolaren funtzio hori egikaritzeko, Botere Judizialek at.

2.2.1. AURREKARI HISTORIKOAK ESPAINIAR ZUZENBIDEAN

¹²VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 17-19 or.

¹³Esan daiteke, jurisdikzio kontzentratuaren sistema hiru fasetan garatu dela. Izan ere, gerrarteko garaian sortu zen, 1920ko Austriako Konstituzioan. Horrela, Txekoslovaquia eta 1931ko Espainiako II. Errepublikako Konstituziora igaro zen eta, II. Mundu Gerraren ondoren, sistemaren garapenak Alemanian, Italian, Portugalen eta Espainia jarraitu zuen.

1989an, berriz, Berlingo hormaren erorketaren ostean, Europa osora zabaldu zen bloke sobietiko zaharreko herrialdeetan. Antzinako herrialde komunista horietan konstituzio-justizia sartzea demokraziaren eta zuzenbide-estatuaren onarpenaren sinbolo izan zen.

¹⁴Modu honetan, Auzitegi Konstituzionalak bere gain hartzen du legeen konstituziokotasun-deklarazioaren monopolioa. Hans Kelsen legelariaren iritziz, praktikoagoa da legegile negatiboaren rola hartzen duen eta legeen konstituzionaltasunaren kontrol abstraktua egiteaz arduratzen den organo bakarra izatea; izan ere, legeak deuseztatzeko eta ordenamendu juridikotik kanporatzeko ahalmena du.

¹⁵VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 17-19 or.

Aipatu bezala, Espainiako Estatuko historia konstituzionalean zaila da legegile negatiboaren funtzioak egikaritu izan dituen erakunde bat aurkitzea, izan ere, aurrekari historiko gutxi daude gai honi dagokionean. Hala eta guztiz ere, denboran zehar saiakera ugari eman dira gaur egungoaren antzerako instituzio bat sortzeko (edo behintzat eskumen eta funtzio berdintsuak egikarituko esleitzeko beste organo konstituzional bati). Beste hitzetan, zenbait ahalegin burutu izan ziren legeen konstituzionaltasuna kontrolatzeko sistema bat ezartzeko baina horietatek bakar bat iritsi zen proiektu izatera.

Aipatu beharreko lehenengoa, 1873ko lege-proiektua¹⁶ da. Hain justu ere, honen 77. artikulua Konstituzioaren aurkako lege ororen efektuak eteteko ahalmena ematen zion Auzitegi Gorenari¹⁷. Urte batzuk beranduago, ordea, beste aurreproiektu bat gauzatu zen: 1929ko Espainiako Monarkia Eratzeko Aurreproiektua, hain zuzen ere. Honek, lege eta erregelamenduen aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurso bat arautzen zuen, Erresumako Kontseiluaren Justizia Atalean¹⁸ ebatzi behar zelarik¹⁹.

Gauzak horrela, aurreproiektu huts batean gelditu ez zen aurrekaria, Bigarren Errepublikako Berme Konstituzionalen Auzitegia²⁰ litzateke; hau aurrez aipaturiko Austriako 1920. urteko Konstituzio Auzitegian eta Kelsenek diseinatu zuen konstituzionalitate kontrol kontzentratuan oinarritzen zen.

¹⁶DIPUTATUEN KONGRESUA, “Espainiako 1978ko Konstituzioaren 159. artikulua sinopsia”, 2003ko abendua (2011 eta 2016an eguneratua), <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=159&tipo=2> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

¹⁷Auzitegi hori Estatu bakoitzak izendatutako hiru kidek osaturik zegoen. Baina, dena den, Kongresuko, Senatuko, Gobernuko eta Auzitegi Goreneko ordezkariak zati berdinetan osatutako Batzorde batek baztertuak izan zitezkeen.

¹⁸Atal hori hamabost kidek osatzen zuten, eta aurreikusita zegoen kide horiek, proportzio desberdinetan, berezko kide izatea, Erregeak biziarteko eran izendatuta, herritarrek hautatuta eta elkargo profesionalek izendatuta.

¹⁹DIPUTATUEN KONGRESUA, “Espainiako 1978ko Konstituzioaren 159. artikulua sinopsia”, 2003ko abendua (2011 eta 2016an eguneratua), <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=159&tipo=2> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

²⁰KONSTITUZIO AUZITEGIA, “El Tribunal de Garantías Constitucionales de la II República Española”, (2016an eguneratua), <https://www.tribunalconstitucional.es/es/tribunal/historia/paginas/tribunal-de-garantias-constitucionales.aspx> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

Eraentza juridikoari zegokionean beraz, Espainiako 1931ko Konstituzioaren 121. artikuluan eta ondorengoetan²¹. Esate baterako, 122. artikulua erakundearen antolaketarako, hau da, epaimahaia osatzeko figura ezberdinak proposatzen zituen; haien artean, Parlamentuko ordezkariak, Errepublikako Goi Mailako Aholkularitza kidegoko presidentek, Errepublikako Kontuen Auzitegiko presidentek, bestelako diputatuak, Espainiako eskualdeetako ordezkariak, abokatuen elkargoetako kideak eta zuzenbideko irakasleak osatuko zuten Auzitegia.

Funtzioak, berriz, aurreko artikuluan, 1931ko Konstituzioko 121. artikuluan xedatzen ziren; besteak beste, honelako eskumanak zituen Auzitegiak legeen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa, banakako bermeen babes-errekurtsoa, legegintzako eskumen-gatazken ebazpena, Errepublikako Presidentea hautatzeko konpromisarioen botereen azterketa eta onarpena, eta Estatuko hainbat funtzionarioen erantzukizun kriminala.

Hala ere, batzuen ustetan ez da zilegi Auzitegi hau aurrekari historikotzat hartzea. Espainiako historia konstituzionalean garrantzia izan bazuen ere, akats larriak aurkeztu dituen erakunde izan baita. Beraz, legelari hauek proposatzen eta bultzatzen dutena zera da: esperientzia hartatik ikastea eta konstituzio-organoaren konfigurazio okerrak dakartzan arriskuen inguruan hausnartzea²².

2.2.2. INSPIRAZIO-ITURRIAK ZUZENBIDE KONPARATUAN

Estatu mailan ez ezik, konstituziogileak nazioarteko sistema konstituzionaletan eta hura legegile negatibo modura egikaritzen zuten organoetan erreparatu zuen. Arestian aipatu den moduan, lehen gerraosteak erabateko aldaketa markatu zuen Kelsen legelariaren eraginpean; izan ere, garai hartako Europa konstituzionalean, konstituzionaltasunaren kontrolaren institutua indarra hartzen hasi zen, kontrol kontzentratuaren sistema jaio zelarik.

²¹Espainiako 1931ko Konstituzioa (*Gaceta de Madrid* 344 zkia., 1931ko abenduaren 10ekoa).

²²GARCÍA-CUEVAS ROQUE, Elena, "Algunas reflexiones en torno al Tribunal de Garantías Constitucionales de la Segunda República Española", *Codex. Anuario de Ciencias Histórico-Jurídicas*, 1. zk., 2004, 125-167 or.

Hala, Ipar Ameriketako kontrol difusoa ez bezala, non epaile guztiak gaituta dauden Arau Gorenaren kontrakotzat jotzen dituzten legeak ez aplikatzeko, kontrol kontzentratuaren ereduak organo bakar baten esku uzten du egiteko hori, KA izanik arau bat Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratzeko eskumena duen bakarra. Multzo honetan kokatzen dira Alemaniako eta Italiako KAK; izan ere, herrialde hauetakoak izan ziren espainiar konstituziogilearen inspirazio-iturri nagusiak.

Alemaniar dagokionean, Alemaniako Errepublika Federalerako Oinarrizko Legearen, Bonnekoko Oinarrizko Legea izenez ere ezaguna dena, 94.1 artikulua²³ zehazten duen eran Auzitegi Konstituzional federala magistratu federalez eta Dieta- eta Kontseilu-federalek aukeraturiko kideez osatzen da. Hauek ezin dira botere legegilearen eta botere exekutiboaren (Gobernu Federala) parte izan (ez estala ezta lurralde jakin batetakoak ere)²⁴.

Italiak, ordea, haren 1947ko Konstituzioaren 135. artikuluan²⁵ xedatzen du, bertako Konstituzio Auzitegiko epaileak bederatzita urteetarako izango direla aukeratuak, epe hau luzaezina delarik. Horrez gain, bertatik, heren bat Gobernuko Presidenteak aukeratuak ditu; beste heren bat Parlamentuak eta, azkenik, gelditzen den herena epaileen, gai juridikoetako unibertsitateko katedradunen eta gutxienez hogeita urteko jardun profesionala duten abokatuaren arteko auzitegi nagusi arruntan eta administratiboen bidez. Bateriaezintasunei dagokienean, ezinezkoa izango dute epaileek Parlamentuko eta Lurralde-kontseiluko kide izan edota abokatu bezalako lanbideetan jardun (legean aurreikusiko dira horiek)²⁶.

Jarraian datorren azpizuntuan, Espainiako KAREN egungo formulazioa eta haren eraentza juridikoa aztertzeko orduan, aipatu berri diren bi herrialdeen legegile

²³Alemaniako Errepublika Federalerako Oinarrizko Legea, (*Bundesgesetzblatt*, 1949ko maiatzaren 23a).

²⁴DIPUTATUEN KONGRESUA, “Espainiako 1978ko Konstituzioaren 159. artikulua sinopsia”, 2003ko abendua (2011 eta 2016an eguneratua), <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=159&tipo=2> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

²⁵Italiako Errepublikako Konstituzioa (*Gazzetta Ufficiale*, 1947ko abenduaren 22a).

²⁶DIPUTATUEN KONGRESUA, “Espainiako 1978ko Konstituzioaren 159. artikulua sinopsia”, 2003ko abendua (2011 eta 2016an eguneratua), <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=159&tipo=2> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

negatiboaren antzekotasunez ohartuko gara. Izan ere, Bigarren Errepublikako Berme Konstituzionalen Auzitegiak gain, Alemania eta Italiako modeloak izan ziren espainiar konstituziogileak eredu nagusitzat hartu zituenak²⁷.

2.3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN MARKO JURIDIKOAREN EGUNGO FORMULAZIOA

Behin egungo KAren inpirazio-iturrien, hau da, aurrekin historikoak eta Zuzenbide konparatuaren, azterketa bat eginik, segidan datorren puntu honetan gaur egun KAren konposizio organikoak eta horretarako beharrezkoa den hautaketa-sistemaren eraentza juridikoa aztertuko da.

Arestian aipatu den bezala, Espainiako 1978ko Konstituzioak titulu oso bat eskaintzen dio Auzitegi Konstituzionalari; IX. Titulua hain zuzen; hau, 159. artikulutik 165. artikulura bitarte zabaltzen da. Horren harira, Testu Nagusiak ezartzen duen oinarria KALOk garatuko du gerora, magistratuei eskaintzen zaien II. Kapituluaren, 16. artikulutik 26. artikulura bitarte.

2.3.1. EGITURAZKO PLANTEAMENDUA: ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 159. ARTIKULUAREN ETA KONSTITUZIO AUZITEGIKO LEGE ORGANIKOAREN 16. ARTIKULUA

Gratu Amaierako Lan honetan, Auzitegi Konstituzionalaren hautaketa-sistema izanik ardatz, Testu Nagusiko 159. artikulua aztertuko dugu; izan ere, xedapen hau ez da mugatzen haren ezaugarri batzuk aipatzera edo adieraztera, baizik eta, zuzenean, magistratuen aukeraketaren basea ezartzen du²⁸. Hala, bost ataletan, pretzeptu honek

²⁷DÍAZ REVORIO, *op. cit.*, 207. or.

²⁸Espainiako Konstituzioaren 159. artikuluan gehiago sakontzeko, ikus: ALMAGRO NOSETE, José, SAAVEDRA GALLO, Pablo, *Justicia constitucional: (comentarios a la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional)*, Tirant lo Blanch, 2 ed., Valentzia, 1989, 730. or.; FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco, “La composición del Tribunal Constitucional: artículo 159”, ALZAGA VILLAAMIL, Óscar (Zuz.), *Comentarios a la Constitución española de 1978*, Gorte Nagusiak, Madril, 1996-1999, XII. Titulua, 61-171 or.; GARRIDO FALLA, Fernando, “Artículo 159”, *Comentarios a la Constitución*, Civitas, 3. ed., Madril, 2001, 2651-2659 or.; ARCE JANÁROZ, Alberto, REQUEJO PAGÉS, Juan Luís. (Zuz.), *Comentarios a la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional*, Konstituzio Auzitegia, Estatuko Boletín Ofiziala, 2001, 1557. or.

KAren osaera, epaileen izendapena eta haien ezaugarriak (estatutua eta baterazintasunak) ezartzen ditu, gerora KALOk garatzen duelarik magistratuei eskaintzen zaien II. Kapituluari, 16. artikulutik 26. artikulura zehazki.

Beraz, testu konstituzional berak zuzenean arautzen ditu erakundearen funtsezko alderdi horiek eta beste batzuk, hala nola, haren eskumenak²⁹. Modu honetan, EKtik jasotzen ditu bere osaeraren, funtzioaren eta posizioaren funtsezko ezaugarriak, eta, beraz, doktrinak erakunde bat organo konstituzional bezala identifikatzeko erabiltzen dituen elementuak biltzen ditu³⁰.

2.3.2. ORDENAMENDU JURIDIKOAK AURREIKUSTEN DUEN HAUTAKETA-SISTEMAREN ALDERDI NAGUSIAK

Beraz, aipatu dugun moduan, Konstituzioko 159. artikulua izango da atal honetan xehatuko duguna, atalez-atal, KAren konposizio organikoa eta hartarako aurreikusten den hautaketa-sistema egokiago aztertu ahal izateko. Hala, lehenengo puntuarekin hasiz, honek ondokoa zehazten du: *Erregeak izendatutako 12 kidek osatzen dute Konstituzio Auzitegia. Haietatik lau, Kongresuak proposatuko ditu, kideen hiru bostenen gehiengoz; beste lau, Senatuak, gehiengo beraz; bi, Gobernuak, eta beste bi, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.*

Beraz, Erregeak izendatutako hamabi kidek osatzen du KA. Haietatik lau, Kongresuak proposatuko ditu, kideen hiru bostenen gehiengoz; beste lau, Senatuak, gehiengo beraz; bi, Gobernuak, eta beste bi, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak. Era honetan, KAren osaera-ereduak, prezeptu honetan deskribatzen den bezala, Estatuko botereen parte-hartzerako orientazioa islatzen du, botere-banaketaren teoria klasikoari jarraiki, exekutiboa, judiziala eta legegilea, azken honen esku-hartze nabarmenarekin bada ere. Gainera, Koroaren parte-hartzea nabarmentzen da, formalki esku hartzen baitu

²⁹FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco, "Reflexiones en torno a la Composición del Tribunal Constitucional en España", *Thémis*, 26. zk., 1993, 15-28. or.

³⁰Alemaniko Konstituzio Auzitegi Federalaren Legearen 1.1 artikuluari jarraiki, KALOk haren lehenengo artikuluan KA organo konstituzionala dela aitortzen du, EKren interpretatzaile gorenaren aldetik. Hala, hau EKren eta bere Lege Organikoaren mende baino ez dago eta bakarria da bere ordenean eta espainiar lurralde nazional osora hedatzen du bere jurisdikzioa. Zentzu honetan, ikus: GARCÍA-PELAYO ALONSO, Manuel, "El status del Tribunal Constitucional", *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1. zkia, 1981, 13. or.; ESTRADA MARTÍN, José Antonio, *La designación de los magistrados del Tribunal Constitucional en España. Una perspectiva orgánica y empírica*, Doktorego tesia, Carlos III Unibertsitatea, 2014, 137. or.

magistratu konstituzionalen izendapenean, organo proposatzaileetan eraginik izan gabe³¹.

Ildo beretik, KAko magistratuen izendapenerako aurretiaz eman ziren saiakera eta ereduak aztertuz gero, aldaera garrantzitsuak dituela esan daiteke, nahiz eta konstituziogile espainiarra aurreko auzitegiek ezarritako bideetatik asko ez urrundu. Hain zuzen, KAren osaketa-formulak izendapen zuzenaren ereduari jarraitzen dio, Estatuko zenbait botereren eragina ahalbidetuz. Hala ere, berritasun nabarmena du, izendapen-prozesuan BJKO eta Gobernuaren parte-hartzea sartzen baitu, organo judicial gorenaren orde³².

Doktrina konstituzionalaren aburuz, KAren osaeraren jatorria Estatuko hiru botereen eskuetan egoteak, organoaren garrantzia eta independentzia markatu nahi izanditu, hauek izendatzen baitituzte bertako kideak, nahiz eta, horietan legegilea argi eta garbi nagusi izan³³. Horrez gain, gainerako organo konstituzional guztiek kideen izendapen-prozesuan parte hartzen duten organo konstituzional bakarra da, eta horrek, beste esanahi posible batzuekin batera, haien duintasuna indartzea eta haien esanahi integratzailea areagotzea du helburu³⁴.

Botere legegileari dagokionean, Kongresuaren kasuan, haren lau hautagaiak proposatzeko prozeduraren oinarri juridikoa haren Erregelamenduarren 204. artikulua³⁵ arautzen du. Senatuaren Erregelamenduaren kasuan, ordea, 184.7 artikulua³⁶ da prozedura hori proposatzen duena. Gainera, azken honi laugarren puntuan garatuko den berezitasun bat gehitu behar zaio, 6/2007 Lege Organikoak, maiatzaren 24koak Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoari ezarri zion erreformarena³⁷. Honek zehazten duenez, Senatuak proposatuko dituen hautagaiak AAEEtako parlamentuek aurretiaz

³¹ESTRADA MARTÍN, *op. cit.*, 138. or.

³²*Idem.*

³³PECES-BARBA MARTÍNEZ, Gregorio, *La Constitución española de 1978. Un estudio de Derecho y Política*, Fernando Torres Editor, 2. ed., Valentzia, 1984, 213. or.

³⁴GARCÍA-PELAYO ALONSO, *op. cit.*, 29. or.

³⁵Ebazpena, 1982ko otsailaren 24koa, Diputatuen Kongresuaren erregelamendu berriari buruzkoa (EBO 55 zkia., 1982ko martxoaren 5koa).

³⁶Senatuko Erregelamenduaren Testu Bateratua, Senatuko Mahaiak onartua, Bozerramaileen Batzarrari entzun ondoren, 1994ko maiatzaren 3ko bileran (EBO 114 zkia., 1994ko maiatzaren 13koa).

³⁷Lege Organikoa 6/2007, maiatzaren 24koa, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa erreformari buruzkoa (EBO 125 zkia., 2007ko maiatzaren 24koa).

proposatuak izango dira; betiere, ganbera autonomikoetako araudiak ezartzen duen moduan. Gure kasuan, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluari³⁸ jarraiki proposatzen dira hautagaiak.

Baina, errefoma honen harira, gerora ere aztergai izango diren bi sententzia eman zituen KAK berak, hura osatzeko hautaketa-sistemari zegokion berrikuntza hau EKren aldekoa edo kontrakoa zen zehazteko. Hauek KAE 49/2008³⁹ eta 101/2008⁴⁰ izan ziren, eta Auzitegian tarteratu ziren konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioen erantzun gisa plazaratu ziren. Bertan, talde parlamentario batek, 6/2007 Lege Organikoak zehaztu zuen erreforma hau aurkatu zen zeren eta, batzuen ustetan, Senatuaren autonomia-ahalmena mugatzen zen. Hala eta guztiz ere, KAK aurkezturiko helegite biak ezetsi zituen, AAEEtako legegileek egindako proposamenak lotesleak ez ziren heinean. Hala, puntu honetan, kontuan hartzekoa da Konstituzioko 79. artikulua⁴¹; izan ere, honek botaketa bat egiterako orduan parlamentarioen betebeharrak jasotzen ditu.

Aipagarria da, Testu Nagusiak KAREN magistratuen aukeraketarako funtsezko zeregina aitortzen diela Gorte Nagusiei, bere hamabi kideetatik zortzi hautatzeko aukera ematen baitie. Horren ondorioz, zenbait kezka sortu dira azpijoku polikoaren dinamika islatu ote daitekeen Auzitegiaren inguruan. Izan ere, horrek esan nahiko luke botere legegilearen politikek haren osaeran eragina izan lezaketela eta, beraz, haren funtzionamendua eragin politiko etengabeen mende egongo litzatekeela. Jakina denez, erakunde juridiko baten aurrean gaude, eta, politikaren esparruarekin lotura hertsia duen arren, ezinezkoa litzateke bere erabakiak baldintzaturik egotea⁴². Hala eta guztiz ere, ideia hau gerorago garatuko da sakontasun handiago batekin.

Estatuko gainontzeko beste bi botereei dagokienean, exekutiboari eta judizialari oro har, bakoitzak bi hautagai proposatuko ditu, berezitasun nabarmenik gabe. Aurrez aipatu den moduan, berrikuntza gisa, espainiar konstituziogileak Gobernuaren eta BJKO parte-hartzea sustatu zuen magistratuen izendapenaren gai honetan.

³⁸Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua (ELAO 121 zkia., 2011ko uztailaren 8a).

³⁹2008ko apirilaren 9ko 49/2008 KAE, EBO 117 zkia., 2008ko maiatzaren 14koa.

⁴⁰2008ko uztailaren 24ko 101/2008 KAE, EBO 200 zkia., 2008ko abuztuaren 19koa.

⁴¹Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁴²ESTRADA MARTÍN, *op. cit.*, 139. or.

Botere judizialari dagokionean, aipagarria den xehetasun bat ere badago hura arautzen duen 6/1985 Lege Organikoan; hain zuzen ere, kasu honetan EK-k gehiengo espezifikorik ezartzen ez badu ere, 599.1 artikuluko⁴³ lehenengo atalak ezartzen du xedatzen dituen bi izendapen horiek BJKOko Osoko Bilkurak egingo duela, hiru bosteneko gehiengoz⁴⁴. Lege bereko 560. artikulua ere zenbait gidalerro ezartzen ditu botere judizialaren aukeraketei dagokienean.

Artikuluaren analisiarekin jarraituz, bigarren puntuak ondokoa zehazten du: *Magistratu eta fiskalen, unibertsitateko irakasleen, funtzionario publikoen eta abokatuen artetik izendatu beharko dira Konstituzio Auzitegiko kideak; denek ere gaitasun-sonaren jabe izan beharko dute, eta hamabost urtetik gora lanbidean jardunak.*

Hala, pretzeptuko atal honek ezartzen duenez, KA osatuko duten hautagaiak magistratu eta fiskalen, unibertsitateko irakasleen, funtzionario publikoen eta abokatuen artetik izendatu beharko direla; betiere, hauek gaitasun-sonaren jabe izan eta hamabost urtetik gora lanbidean jardunen errespetatuz⁴⁵. Baina, baldintza zehatz horiei, KALOko 18. artikulua galdatzen duen Espainiako nazionalitatearen eta adin-nagusitasunaren eskakizun orokorrak gehitu behar zaizkie, Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikuluan aurreikusitako kargu publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagozkionak, 11. eta 13.2 artikuluekin lotuta dagoelarik.

Eskakizun horiek bete behar duten funtzio jurisdikzionalari dagozkion egokitasun profesionala eta independentzia erraztera bideratuta daude. Hala ere, Konstituzioak berak apartatu bat eskaintzen du laister aztertuko den 159.5 artikuluan, azpimarratzeko Konstituzio Auzitegiko kideak independenteak eta aldaezinak izango direla beren agintaldian, eta hori indartu egiten da Konstituzioak diseinatu eta Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoak zabaltzen duen bateraezintasun-araubidearekin⁴⁶. Segidan, hirugarren puntuak ondokoa zehazten du: *Konstituzio Auzitegiko kideak bederatzi urterako izendatuko dira, eta herenka berrituko dira hiru urtetik behin.* Modu honetan, atal honek KAKo kideen iraupena ezartzen du; zehazki, hauek bederatzi

⁴³Lege Organikoa 6/1985, uztailearen 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa (EBO 157 zk., 1985eko uztailearen 2koa).

⁴⁴DÍAZ REVORIO, *op. cit.*, 209. or.

⁴⁵FOSSAS ESPADALER, *op. cit.*, 2161. or.

⁴⁶VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 31. or.

urterako izendatuko dira, herenka berrituko direlarik hiru urtetik behin⁴⁷. EKren 159.3 artikulua zehazten duen berme honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, Auzitegiak osaera egonkorra izatea bermatzea, bat-bateko aldaketak saihesteko; eta, beste alde batetik, ordea, aukera ematen du Parlamentueko gehiengo berriak modu orekatuan islatzeko KAren profilean. Hori garrantzitsua da, Auzitegiak gizarte-dinamikaren, konstituzio-balioen eta legearen interpretazioaren arteko bitartekari gisa jokatzeko⁴⁸. Puntu honetan, aipagarria da berritzeko, Gobernuak izendatutako bi magistratuek eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatutako biek heren bakarra osatzen dutela⁴⁹.

Laugarren puntuak, berriz, magistratuen bateraezintasuna ezartzen ditu. Hala dio: *Konstituzio Auzitegiko kide izatearekin bateraezintasun berak dagozkie ordezkaritza-mandatu oro; kargu politiko edo administratiboak; alderdi politikoren batean edo sindikaturen batean zuzendaritza-eginkizunetan aritzea eta haien zerbitzuan lan egitea; karrera judizialean eta fiskalean jardutea, eta edozein lanbidetan edo merkataritzan aritzea.*

Gainerakoan, botere judizialeko kideei dagozkien bateraezintasun berak dagozkie Konstituzio Auzitegiko kideei.

Beraz, KAko magistratuek, haren jarduentan dihardutenean, botere judizialeko kideei dagozkien bateraezintasunez gain, debekaturik izango dute ordezkaritza-mandatu oro, kargu politiko edo administratiboak, alderdi politikoren batean edo sindikaturen batean zuzendaritza-eginkizunetan aritzea eta haien zerbitzuan lan egitea, karrera judizialean eta fiskalean jardutea edota edozein lanbidetan edo merkataritzan aritzea.

Azkenik, aurrez aipatu den bosgarren puntuak hurrengo ezartzen du: *Konstituzio Auzitegiko kideak independenteak eta mugiezinak izango dira beren jardunean.*

⁴⁷Formula hori Frantziako sistema judizialarekin lotu ohi da, eta berezitasun bat du beste lege-sistema batzuekin alderatuta. Adibidez, Italian magistratuak ez dira osorik berritzen, baizik eta bakoitzak bere mandatua betetzen du ordezkatua izan aurretik. Italiar konstituziogilearen esanetan, praktika honek *La Corte Costituzionale* konposizio egonkor bat mantentzen laguntzen du, bere egitura aldaketa malkartsuak saihestuz. FERNÁNDEZ SEGADO, *op. cit.*, 25. or.

⁴⁸*Idem.*

⁴⁹DÍAZ REVORIO, *op. cit.*, 205-220 or.

Hala, EK-ko pretzeptu honek aurreikusten dituen berme guztiakin, konstituziogileak magistratuen independentzia babestu nahi izan du, KAren lanean eta jurisprudenzian etengabeko eta hausturarik gabeko bilakaera ahalbidetu nahi izan duelarik. Modu honetan, konstituziogileak agintaldi luzea aukeratu zuen magistratuak hautatzen dituzten organoena baino askoz handiagoa dena; baita zatika berritzea ere, herenka alegia, jarraipen hori errazteko. Gainera, gehiengo kualifikatuaren eskakizuna garrantzitsua da, botere guztiei eragiten baitie, Gobernuak hautatutakoei izan ezik. Betekizun horrek parlamentu-ganberetan ordezkaturako alderdi nagusien arteko akordioa bilatzen zuen, proposaturako izen guztiak adostu behar izateko⁵⁰.

3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HAUTAKETA-SISTEMA ETA LURRALDE BANAKETAREN INGURUKO FUNTZIOEN ARTEKO LOTURA

3.1. PLANTEAMENDUA

Doktrina konstituzionalak EK-k indarrean diharduen urteen balorazioa positiboa dela irizten du, azken honek ezarritako justizia konstituzionalaren ereduari dagokionean bereziki. Eraitza horretara iristeko, KA erabakigarria izan den erakunde bat da, lehen urteetan batik bat; izan ere, EK-k esleitu zizkion beste eskumenen artean, Autonomien Estatuak markatu zuen deszentralizazio-prozesua sendotzen lagundu zuen urte haietan luzaturiko jurisprudenzia eta doktrina konstituzionalarekin⁵¹.

Gauzak horrela, Arau Gorenak proposatzen zuen estatu eredu berria finkatzeko prozesu horren berezitasun tekniko eta politikoek, zenbaitetan irekia eta zehaztugabea den EKren VIII. titulutik abiatzen direnak (Estatuaren Lurralde-antolaketari buruzkoa), posizio berezian jarri zuten Auzitegia, beste batzuen artean konstituzionaltasunaren bloke hori interpretatzeagatik. Hortaz, Espainiako Estatuaren lurralde-ereduak jatorri konstituzionala eduki arren, garapen jurisprudenziala duela esan daiteke, KAK gai

⁵⁰DÍAZ REVORIO, *op. cit.*, 210 or.

⁵¹PÉREZ TREMPES, *op. cit.*, 11. or.

honen inguruan eman dion zentzuagatik, batez ere⁵². Beste era batean esanda, Auzitegiak EK-k esleitu zizkion beste eskumenen artean, Autonomien Estatuak markatu zuen deszentralizazio-prozesua sendotzen lagundu zuen urte haietan luzaturiko jurisprudenzia eta doktrina konstituzionalarekin⁵³.

Horrela, Arau Gorenak KAri eskaintzen dio IX. Titulua ez da soilik hura aipatzera mugatzen edo haren ezaugarrietako batzuk adieraztera; aitzitik, zuzenean aurreikusten ditu haren osaera, izendapenean parte hartzen duten organoak eta kideak hautatzeko prozeduraren zenbait ezaugarri, berritzeko eredua, haren erakunde-estatutua eta eskumen-sistema, eta lege organiko batera igortzen ditu hura garatzeko gainerako alderdiak. Beraz, EKtik jasotzen ditu Auzitegiak bere osaeraren, funtzioaren eta posizioaren funtsezko atributuak, eta, horrela, doktrinak oro har konstituzio-organok izendatzeko erabiltzen dituen elementuak ditu⁵⁴.

Horretarako, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko (edo azken hauek beraien arteko) eskumen-gatazkak eta konstituzio-kontrakotasun helegiteak (eta auziak hein txikiago batean) izan dira tresna prozesal esanguratsuenak. Hain zuzen ere, EKren 161.1 artikulua⁵⁵ eta KALoren 2. artikulua⁵⁶ Auzitegiaren jurisdikzio-ahalmena Espainiako lurralde osoan zabalduko dela zehazteaz gain, eskumen konkretu batzuk ezartzen dizkio aztergai dugun erakundeari. Horien artean, lege eta lege-indarreko arau xedapenen eta nazioarteko hitzarmenen aurkako konstituzio-kontrakotasun helegiteak eta EK-ko 53.2 artikuluan⁵⁷ aipaturiko eskubide eta askatasunen bortxaketan inguruko babes-errekurtsoak ebazteko ahalmena eta lege organiko ezberdinek esleitzen dizkion gainerako gaien gainean jakintza izango du, baita Estatuaren eta AAEEren arteko (eta

⁵²*Ibidem*, 12. or.

⁵³*Idem*.

⁵⁴KAren kategorizazioa, organo konstituzional gisa, KALoko 1. artikulua ezartzen du, manu hori Alemaniako Konstituzio Auzitegi Federalaren Legearen 1.1 artikuluan oinarrituta, dagoelarik. Lege Organikoak ezartzen duenez, KA EKren interpretatzaile gorena den aldetik, gainerako organo konstituzionalekiko independentea da eta haren eta KALoren mende dagoela soilik. Bakarra da bere ordenan eta bere jurisdikzioa Espainiako lurralde nazional hedatzen. Ikus zentzu horretan, GARCÍA-PELAYO ALONSO, *op. cit.*, 13. or.; ESTRADA MARTÍN, *op. cit.*, 138. or.

⁵⁵Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁵⁶Lege Organikoa 2/1979, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa (EBO 239 zkia., 1979ko urriaren 5koa).

⁵⁷Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

AAEEK haien artean) eman daitezkeen eskumen gatazken inguruan azken erabakiak emateko potestatea ere.

Aipaturikoa aintzat edukita, ukazina da KAK espainiar ordenamendu juridikoa eta sistema politikoa konstituzionalizatzeko prozesuan izan duen funtsezko zeregina. Hala eta guztiz ere, arestian azaldutako guztiak ez du Espainiako konstituzio-justiziaren ereduak arazorik ez duenik esan nahi; aitzitik, arazo horiek existitzeaz gain, azken urteetan areagotu egin direla esan daiteke. Eta, afera horiek arlo desberdinetatik eratorzen diren arren, sistema konstituzional osoan dute eragina.

3.2. ESPAINIAR ORDENAMENDU JURIDIKOAK AURREIKUSTEN DUEN BERME-MEKANISMOAK KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HAUTAKETA-SISTEMARI DAGOKIONEAN

Arestian azaldutakoak ez du inola ere justizia konstituzionalaren eredu espainiarrak arazorik ez duenik esan nahi; aitzitik, arazo horiek existitzeaz gain, azken urteotan hainbat faktorek areagotu dituzte. Horien artean, Auzitegiaren lan-gainkarga, Botere Judizialarekiko tentsioak (bereziki Auzitegi Gorenarekiko)⁵⁸, Oinarrizko Eskubideen babes judizialaren urritasuna, konstituzio-kontrakotasuna aitortzeko gehiegizko zurruntasuna eta Europatik eratorritako sistema juridiko-politikoarekiko arazo teknikoak bezalakoak bereizten dira⁵⁹. Baina, Gradu Amaireko Lan honek hizpide duen AAEEKiko arazo ugariak eta, beste batzuen artean ere, horrek dakarren Auzitegiaren legitimitate funtzionalaren galera erlatiboak ere zuzeneko eragina erronka negatibo hauei dagokienean.

Azken honi eutsiz, erronka ezberdinak bereizi daitezke KAREN eta AAEEren gatazken oinarrian; baina, argi dagoena zera da, AAEEen iritziz, elementu amakomuna lurralde-errepresentazioaren isla falta dela, Estatuko beste zenbait instituzioetan ematen den bezala. Arrazoi honegatik, Erkidegoek zuzeneko parte-hartze bat galdatzen dute

⁵⁸HUELIN MARTÍNEZ DE VELASCO, J., “El dialogo entre el Tribunal Constitucional y el Tribunal Supremo: Una plática abierta a otros contertulios”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Tribunal Constitucional y diálogo entre tribunales*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2013, 211. or.

⁵⁹PÉREZ TREMP, *op. cit.*, 14. or.

organo konstituzionalen aurrean, KA horietako bat delarik. Hala, esku-hartze horren adibidea izan daiteke, lan honen aztergai nagusia den hautaketa-sisteman AAEEK izan dezaketena.

Hori konpontzeko asmotan, 6/2007 Lege Organikoak, maiatzaren 24koak, KALO erreformatu zuen⁶⁰. Gerora honetan gehiago sakonduko den arren, aipamen bat egingo zaio ordenamendu juridikoaren aldaketa honi. Aurreko puntuan aztertu den moduan, EKren 159. artikuluko lehen hiru puntuek⁶¹ Auzitegiaren epaile kopurua, aukeraketa-sistema, haien ezaugarriak eta iraupena ezartzen ditu, gerora KALOn 16.1 artikulua⁶² bertan zehazten dena garatzen duelarik. Hartan esaten denez, hamabi izango dira KA osatuko duten magistratuak eta horietatik lau Senatuak proposatuak izango dira. Baina, erreforma honen harira, KALOn 16. artikuluan ezarri ziren hautaketa-sistemari buruzko aldaketak. Hala, lehenengo atalari, beste lerrokada bat gehitu zitzaion: *AAEetako parlamentuek aurkezturiko hautagaien artetik hautatuko dira Senatuak proposaturiko magistratuak, ganberaren erregelamenduak ezartzen duen moduan*. Hortaz, Senatuak proposaturiko magistratuak AAEEtako parlamentuek aurkeztutako hautagaien artetik hautatuko dira, Ganberaren erregelamenduak ezarritakoaren arabera. Beste hitzetan, botere legegile autonomikoei aurkezturiko hautagaien artetik hautatuko dira Senatuak proposaturiko magistratuak, ganberaren erregelamenduak ezartzen duen moduan.

Horren harira, 2008an KAK berak bi sententzia eman zituen, 49/2008⁶³ eta 101/2008⁶⁴ Epaiak hain zuzen, aipaturiko erreforma horren konstituziokotasuna aztertuz. Horietan zehaztu zenez, AAEEK proposatzen dituen hautagaiak ez dira lotesleak izango Senatuaren azken aukeraketari dagokionean; eta, modu honetan, ez da Ganbera honen autonomia mugatzen. Hala ere, gaur egun eztabaida horrek pizturik jarraitzen du erreforma honek ez baititu asebetetzen AAEEren beharrak, formalitate batean gelditu delarik.

⁶⁰Lege Organikoa 6/2007, maiatzaren 24koa, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa erreformari buruzkoa (EBO 125 zkia., 2007ko maiatzaren 24koa).

⁶¹Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁶²Lege Organikoa 2/1979, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa (EBO 239 zkia., 1979ko urriaren 5koa).

⁶³2008ko apirilaren 9ko 49/2008 KAE, EBO 117 zkia., 2008ko maiatzaren 14a.

⁶⁴2008ko uztailaren 24ko 101/2008 KAE, EBO 200 zkia., 2008ko abuztuaren 19a.

Beraz, KA Autonomien Estatuaren ibilbidea interpretatzen duen erakundea izanik, haiei dagokien eskumenen alkantzua eta AAEEen lege eta lege indardun arauen konstituziotasunaren inguruko erabakiak hartzeko potestate osoa du. Horren harira, EK 161.2 artikulua⁶⁵ Estatuko Gobernuari aitortzen dio KAren aurrean, AAEEtako organoek emandako xedapen eta ebazpenei aurkajarpena jartzeko ahalmena, hala, aurkatu den xedapen edo ebazpen aldi baterako ahalgabetzea eragingo du, Auzitegiaren berrespenarekin. Puntu honetan, gerora jorratuko den beste problematika bat aipatuko da, hain zuzen, magistratuen aukeraketaren atzerapenarena. Izan ere, Estatuak AAEEren egitekoak geldiarazteko ahalmena du EK-ko 161.2 artikulua aitortzen dioen heinean eta, egitate horrek, zuzenean eragitzen du Erkidegoen funtzionamendu arruntean⁶⁶.

EKren 69.1 artikuluari jarraiki, Senatua lurraldeak ordezkatzeko dituen ganbera da; hala, Senatua izango da AAEEen parte-hartzea ordezkatzeko duen organo konstituzionala, abstraktuki ganbera lurraldetarra den heinean. Gauzak horrela, baliteke EK-k instituzio hau definitzerakoan esleitzen dion funtzioa, Erkidegoen errepresentazioarena, behar bezala ez egikaritzea; eta, horren adibide litzateke, esaterako, hautaketa-sisteman lurralde autonomikoek duten protagonismo falta. Konstituziogileak Espainia estatu deszentralizatu bat bezala diseinatu zuen, Senatua izango zelarik Autonomien Estatuaren ordezkari; hala, funtzio hori haren osotasunean ez betetzeak kritikara eramaten gaitu, Ganbera honen izaeran fokalizatuz⁶⁷. Era honetan, eta, arestian aipatu den moduan, 6/2007 Erreforma, arazo horren konponbidetzat jo zitekeen, baina, gerora plazaratu ziren sententziek, AAEEK egindako proposamen izaera loteslea ukatzean, formalismo hutsean utzi zuten hura. Ondorioz, KAK ikuspegi autonomiko eskasa duela ondorioztatu daiteke.

⁶⁵Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁶⁶CAMACHO GARCÍA, Alicia, SOUTO GALVÁN, Marta, “Jurisprudencia constitucional sobre el Estado Autónomo (julio de 2014-julio de 2015)”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Democracia constitucional y diversidad cultural*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2017, 154. or.

⁶⁷Hala ere, EKren 69. eta 159.1 artikuluen interpretazio bateratua egitean, hain zuzen ere, AAEEK Auzitegiaren osaeran parte hartzeko printzipioa ekar dezakete, hainbat modutan gara daitekeena. URÍAS MARTÍNEZ, Joaquín Pablo, “El Tribunal Constitucional ante la participación autonómica en el nombramiento de sus miembros”, *Revista d'estudis autonòmics i federals*, 10. zk., 2010, 227. or.

Gauzak horrela, puntu honetan, hausnarketa bat egiteko aukera sortzen da: Senatua, EKren 69. artikulua⁶⁸ dioenera lotuko balitz, ez litzateke beharrezkoa izango 2007ko erreforma, Autonomia Estatuaren eta lurralde ordezkartzaren organo konstituzionala bailitzan; hipotesi hori emengo balitz, proposaturiko kritika honek indarra galduko luke.

Guzti hau aintzat hartuz, aipaturikoa KAren eginkizun nabarmen bezala laburbildu dezakegu, gehienbat Autonomien Estatuaren eta botere bertikalaren deszentraliziora dagokionean. Gauzak horrela, EK-k eta KALOk Auzitegiari esleitzen dizkion funtzioak egikaritzeko oso garrantzitsua dugu konposizio organikoa aztertzea, osaera benetan garrantzitsua den kontzeptu bat baita. Hori horrela izanik, Espainiako ordenamendu juridikoak berme-mekanismo bat aurreikusten du garantia jurisdikzional eta konstituzional guztiak beste daitezen.

KAko magistratuen proposamen-sistemari dagokionean, espainiar ordenamendu juridikoak hura ezartzen duen heinean berme-mekanismo bat proposatzen du. Gradu Amaierako Lan honetan zehar jada aipatu denez, organo konstituzional honi esleitzen zaizkion eskumen eta funtzioek berebiziko garrantzia dute Estatuaren eta haren biztanleei dagokienean; izan ere, Auzitegia Testu Nagusiaren interprete gorena den heinean, zenbait motatako kontzeptu pisutsuak izan ohi ditu aztergai nagusi, Estatuaren eta AAEEren artean ematen diren gatazkak bezala, besteak beste.

Aurreikuspen horiekin guztiekin, EK-k magistratuen independentzia babestu nahi izan du, hala, KAren lanean etengabeko eta hausturarik gabeko funtzionamendua ahalbidetuz⁶⁹. Puntu honetan, berriz ere EK-ko 159. artikulua⁷⁰ eta KALOk 16. artikulua⁷¹ ekarri behar dira gogora, pretzeptu hauek xedatzen dutenetik abiatzen baita ordenamendu juridikoaren berme-sistema. Lan honen bigarren ataleko Konstituzio Auzitegiaren egungo formulazioa puntuan azaldu den moduan, KAren konposizio organikoaren ezaugarriak izango dira sistema garantizatzaile horiek ezartzen dutena.

⁶⁸Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁶⁹Hala zehaztu zuen KAK jarraian zitatuko den Epaiena Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren inguruan; ondorioz, analogia aplikatuz gauza bera esan daiteke aztergai dugun Auzitegiaren inguruan, organo konstituzional den heinean. 2023ko urriaren 2ko 128/2023 KAE, EBO 261 zkia, 2023ko azaroaren 1ekoa.

⁷⁰Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa).

⁷¹Lege Organikoa 2/1979, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa (EBO 239 zkia., 1979ko urriaren 5ekoa).

Doktrina konstituzionalaren aburuz, osaeraren jatorriak organoaren garrantziak eta independentzia markatu ohi ditu, Estatuko hiru botereek izendatu baitituzte kideak, nahiz eta legegilea nagusi izan⁷². Hala, KA gainerako organo konstituzional guztiek parte hartzen duten organo konstituzional bakarra da eta egitate horren ondorioz, beste esanahi posible batzuekin batera, instituzio honen ospe ona indartu eta esanahi integratzailea areagotu egiten da⁷³.

Horren harira, segidan aipatuko diren artikuluek izaera garantizatzaileko zenbait lege-mekanismo zehazten dituzte. Estatuko botereei dagokienean, magistratuak izendatzeko proposamenetarako hiru bosteneko gehiengo kualifikatuaren beharra ezartzen da, bai Kongresutik, Senatutik BJKOtik eratorritakoetarako ere⁷⁴. Horrela, xedapen horrek adostasun nabari bat galdatzen du, bereziki gehiengo kualifikatuaren eskakizun garrantzitsua dela eta, guztiei eragiten baitie, Gobernuak hautatutakoei izan ezik⁷⁵.

Idea honekin loturik, magistratuen jarduteko indarraldiari dagokionez, bederatzi urteko epea ezartzen da magistratu-kargua betetzeko. Luzapen horren helburua epailetza egonkortzea da eta ezagutza eta esperientzia judizialean gehiago sakontzea da. Era berean, Estatuko beste organo konstituzionalak osatzen dituzten beste karguena baino iraupen luzeagoa aurreikusten KAn; organikoki, jatorri desberdinetatik datorren erakundea da eta, horren ondorioz, erabateko aldaketak, politizazioaren eraginpena gelditu daitezkeen horiek esaterako, ekidin nahi izan zituen konstituziogileak. Gauza bera ondorioztatu daiteke, Auzitegiaren zati bat berritzea ezartzearen bermearekin; osaera denboran zehar herenka berritzearen dinamika bat ahalbidetuz, eta horrek gizartearen behar eta erronka aldakorretara egokitzen laguntzen du⁷⁶.

⁷²PECES-BARBA MARTÍNEZ, *op. cit.*, 213. or.

⁷³GARCÍA-PELAYO ALONSO, *op. cit.*, 29. or

⁷⁴Lege Organikoa 6/1985, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa (EBO 157 zk., 1985eko uztailaren 2koa).

⁷⁵DÍAZ REVORIO, *op. cit.*, 210. or.

⁷⁶FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco, “Reflexiones en torno a la composición del Tribunal Constitucional en España”, *Thémis*, 26. zk., 1993, 24. or.

Hala, behin kargualdia amaiturik, Auzitegiko kideen berehalako hautaezintasuna debekatzen da kideak benetan txandakatzen direla bermatzeko eta gutxi batzuen eskuetan botere-kontzentrazio luzea saihesteko⁷⁷.

Berme orokorren artean, EK-k nolabaiteko kualifikazio tekniko-juridikoa eskatzen du magistraturako izangaitzat hartzeko, eta, horrela, gaitasun- eta ezagutza-maila minimo bat bermatzen da kargu garrantzitsu hori lortu nahi dutenengan. Azkenik, magistratuentzako estatutu juridiko bat zehazten da, Botere Judizialeko kideenaren antzekoa, non bereziki nabarmentzen baita bateraezintasun-araubidea, eginkizunak betetzean inpartzialtasuna eta osotasuna ziurtatuz. Ildo horretatik beraz, mekanismo horiek lege-sare koherente eta sendoa osatzen dute, Auzitegiaren independentzia eta eraginkortasuna indartzea bilatzen duena⁷⁸.

Ordenamendu juridikoak ezarritako sistema-garantizatzailearen aspektu nagusiak ezagutu ondoren, gai honen inguruko gogoeta bat egiteak merezi du. Jakina denez, KAK hari dagokion interpretazio-lan korapilatsua irizpide juridikoen arabera egin behar du, eta ez, ordea, irizpide politikoen arabera. Lege oro onartu aurreko eztabaida politikoa Gorte Nagusietan edo parlamentu autonomikoetan garatzen da, baina ezinezkoa da hauek Auzitegiaren baitara eramatea, bertan argudio juridikoek bakarrik oinarritu baitezakete arauaren konstituzio-kontrakotasuna⁷⁹.

Hori kontuan izanik, eta elementu garrantzitsu honi behar bezala erantzuteko, konstituziogileak karakteristika eta meritu berezi batzuk galdatzeaz gain, horien izendapenerako prozesu zehatz bat errespetatu behar zela ulertu zuen. Eta, modu honetara, aurrez aztertu dugun prezeptu zehatza gauzatu zuen Auzitegiaren konposizio organikoa arautzeko: 159. artikulua. Arestian ikusi denez, bertan ezartzen diren magistratu kopurua, karguaren iraupena eta hauek txandaka berritzearena eta Estatuko hiru botereen parte hartzea eta horietako zenbaitetan beharrezkoa den adotasuna izango lirateke elementu garantizatzaileak.

⁷⁷*Idem.*

⁷⁸*Idem.*

⁷⁹VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 43-44 or.

Baina, errealitatean, egoera oso ezberdina da; izan ere, Estatuko hiru botereek, aukeraketa prozesu honetan konstituziogileak ezarri zituen jarraibideak ez errespetatzeak, Auzitegiaren sinesgarritasuna galtzea eragiten du. Gauzak horrela, izaera juridikoa duen instituzio baten aurrean gaude baina, ukaezina da, azken urteetan haren epai eta erabakiak geroz eta politizatuagorik egon daitezkeela. Beste hitzetan, instituzio honek demokraziaren lehen urtetan zuen garrantzia eta sinesgarritasunarekin alderaturik, gaur egungo panorama zeharo ezberdina dela esan daiteke. Hortaz, errealitate honek negatiboki eragiten du espainiar sistema juridikoan, emaitza nagusi eta zuzenatariko bat, KAK ematen dituen epaien devaluazioa delarik. Bertako epaileen orientazio ideologiko eta politikoak, zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean epaileei esleitzen zaizkien independentzia eta inpartzialitate printzipioak urratzen ditu. Horren ondorioz, pentsatzea legoke urteen poderioz KA galtzen joan den sinesgarritasun eta legitimitatearen arazo hau, hertsiki loturik egon litekeela Autonomia Estatuaren inguruan emaniko jurisprudentziak izan duen joera zentralistarekin⁸⁰.

3.3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO HARREMANA

Arestian adierazi den bezala, KAREN jardun-eremu garrantzitsuenetako bat, neurri handi batean, Estatuaren lurralde-antolaketa izan zen, lehen urteetan batez ere, Testu Nagusiak ezartzen zuen Autonomien Estatua finkatzerako orduan. Baina, gaur egun ere, egitate honek garrantzitsua izaten jarraitzen du, urte hauetan zehar KAREN jurisprudentzia erabakigarria izan delarik AAEEren egitura teknikoa eta politikoa ulertzeko. Horietako erkidego batzuek, bereziki alderdi nazionalisten presentzia dutenek, zenbaitetan Auzitegiak Estatu deszentralizatuaren ikuspegitik duen zilegitasuna zalantzan jartzen dute. Honen adibide da EAEn eta Kataluniaren kasua; zenbait jarrera ezberdinu daitezke gai honekin, baina, kasu guztietan KAReriko identifikazio instituzionalik eza antzematen da⁸¹.

⁸⁰EGILE ASKO, *La erosión silenciosa*, Eusko Jaurlaritza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (Zuz.), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Euskadi, 2021.

⁸¹PÉREZ TREMP, *op. cit.*, 19. or.

Gure kasuan, EAeri dagokionean, eta urte batzuk atzera eginaz, benetako krisi instituzionala antzematen zen; izan ere, Eusko Jaurlaritzak 1990ean utzi zion Auzitegiaren aurrean errekurtsogile gisa jotzeari, salbuespen batzuk salbu⁸². Demandatu gisa, ordea, sarritan agertu izan da⁸³. Hala, puntu honetan Ibarretxe Planak proposaturiko ideietako bat aipatzeak merezi du; izan ere, planteatu zen KAren barruan sala berezi bat sortzea, Euskadi-Estatua Gatazken Auzitegia izenekoa, osaera esanguratsu eta bereziarekin: Konstituzio Auzitegiko hiru magistratu eta Eusko Legebiltzarrak proposatutako hiru. Hala, ideia berritzaile honen aparteko proposamen honek oinarrian KAren aurrean AAEEK duten lurraldetasun-ordezkaritzaren faltaren isla dela esan daiteke.

Horrez gain, Espainiako Estatuaren aldetik Gernikako Estatuak⁸⁴ EAerentzat gordetzen dituen eskuduentzen transferentzia ezaren gaiak, asko du esateko gure lurraldeak KAren inguruan harturiko jarreraren baitan. Konpetentzien eskualdatzearen inguruan eman diren eztabaida eta gatazkek, hauekiko higadura bat sortu dute. Hala, eskumenak higatzeko bide ugari bereizi daitezke, hala nola: Estatuko Oinarrizko Legean gordetzen dena, EK 149.1 artikulua esaterako (batez ere, bertan barnebiltzen diren oinarrizko berdintasun-baldintzak (149.1.1 artikulua)⁸⁵ eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa (149.1.13 artikulua)⁸⁶; Estatuaren Gastu Ahalmenaren bidez, EKren 135. artikuluan arautzen dena eta, ondoren, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoan garatzen dena eta hari lotutako jurisprudentzia konstituzionala KAE 13/1992 hain zuzen⁸⁷, EKren 155. artikuluaen aplikazioaren mehatxua, Europar Batasunetik eratortzen diren araudien tranposizioak, eta abar⁸⁸.

⁸²Jarrera horren salbuespen bakarra, kalkulu politikoko arrazoiengatik bideratuta, Alderdi Politikoen 6/2002 Lege Organikoaren aurka egin zenean eman zen. PÉREZ TREMPES, *op. cit.*, 20. or.

⁸³*Idem.*

⁸⁴Lege Organikoa, 3/1979, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatuari buruzkoa (EBO 306 zkia., 1979ko abenduaren 22koa).

⁸⁵TORNOS MAS, J., “La construcción del Estado autonómico”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Cuatro décadas de jurisprudencia constitucional: los retos*, Foros y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2020, 193. or.

⁸⁶LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki, “Euskal Herria (1978-2001). Estatuaren esperientzia Euskal Autonomia Erkidegoan”, *Zuzenbide Publikoa Euskal Herrian*, Lete Argitaletxea-HAEE/IVAP, Bilbo, 2017, 51. or

⁸⁷1992ko otsailaren 6ko 13/1992 KAE, EBO 54 zkia., 1992ko martxoaren 3a.

⁸⁸EGILE ASKO, *La erosión silenciosa*, *op. cit.*

Baina, horiez gain, lan honetan interesatzen zaigun beste higadura mota bat da KAren doktrina konstituzionala eratotzen dena⁸⁹. Horiez gain, aintzat hartu behar dira ere, sarritan, KAren presidentziatik eratorri diren adierazpen batzuk, zeinak AAEEak Estatuko sistema konstituzionalean eraso ez egotea erakarri duen⁹⁰.

Beste kusegi zabalago batetik, ordea, eskumenen higadura modu askotara eman daitekeela zehaztu daiteke. Jakina denez, kompetentzien izaeraren eta aplikazioaren baitan multzo ezberdinak osatzen dira, higaduraren irismena ere desberdintzen delarik. Hala, ez da berdina izango eskumen orokorren, eskumen eskusibo eta partekatutakoen edo exekuzio gaietatik eratortzen diren ondorioak⁹¹. Baina, desberdintasunak desberdintasun, horietako denek elementu amankomun bat dute eta, hori, jarraian azalduko den KAE 31/2010⁹² jasotzen da. Epai honen funtsa, Kataluniako AEren inguruan biltzen zen, bertako atal batzuen konstituziokotasuna aztertu zelarik. Hala ere, aztertu zuen gaiean sartu gabe, sententziak honen eskumenen kontzepturarekiko eta estatu deszentralizatuaren ereduarekiko ezarri zuen aldaketari helduko diogu; izan ere, guztiz aldatu zuen Espainiako Estatuak eskumenekiko zuen jarrera⁹³, konstituzio-kontrakotasun errekurtsua onartu baitzuen, pasarte hauek EKren aurkakoak zirela determinatuz. Konkretuki, Katalunian autonomiaren etorkizuna baldintzapean jartzen eta mugatzen zuen arazo bat eman zen. Eta, horren arrazoia, espainiar Estatuaren kompetentzien zenbat gai oso modu zabalean intepretatu zirelako izan zen⁹⁴.

Gauzak horrela, aipaturiko epaiaz geroztik, eskumenen birzentralizazio-prozesu bat bultzatu zela esan genezake, 2010az geroztik hau esparru politikoan zein jurisprudenzialean sendotzen ari delarik. Prozesu hori, neurri batean, 2008ko krisi ekonomiko-finantzarioaren ondorioz indartzen joan da eta, horren harira hartutako neurri guztiak zuzenean krisi honen ondorio izan ez diren arren, deszentralizazioa kudeaketa administratibo batera mugatu behar delako usteari erantzuten diotela ematen du, modu honetan AAEEak gobernu zentralaren politika zentralisten kudeatzaile soiltzat

⁸⁹*Idem.*

⁹⁰PÉREZ TREMPs, *op. cit.*, 20. or.

⁹¹EGILE ASKO, *La erosión silenciosa, op. cit.*

⁹²2010ko ekainak 28ko 13/1992 KAE, EBO 172 zkia., 2010ko uztailaren 16a.

⁹³DESDENTADO DAROCA, E., “El control de constitucionalidad en procesos de contenido competencial”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Tribunal Constitucional y diálogo entre tribunales*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2013, 253. or.

⁹⁴LASAGABASTER HERRARTE, *op.cit.*, 298-299.or

hartuz. Laburbilduz, KAE honen efektuak direla eta, AAEEK arlo garrantzitsuetan politika propioak ezartzeko duten gaitasuna hutsaldu egin da neurri handi batean⁹⁵.

Horren harira, Kataluniako Autonomia Erkidegoaren jarrera askoz ere zehatzagoa izan da gai honi dagokionean. Izan ere, urte batzuk atzera eginaz, Katalunia aldian-aldian joaten ohi da KAra, bere jarrerak defendatzeko edota auzi-jartzaile gisa edo demandatu gisa. Hala, Kataluniak auzitan jartzen duena ez da erakundea bera, baizik eta Autonomia Erkidegoek, bereziki berak, magistratuen izendapenean duen parte-hartze esaka litzateke, Auzitegiaren baitan sentsibilitate autonomiko handiagoa egoteko mekanismo gisa⁹⁶. Modu honetan, aurrez aipaturikoa errepikatzen da berriro; izan ere, zenbait jarrera ezberdindu daitezke gai honekiko moderatuagoa ala erradikalagoa, baina, modu batera edo bestera, KAeriko identifikazio instituzionalik eza antzematen da Baina, doktrina konstituzionalak zehazten duen eran, noizbehinka KAren presidentziatik eratortzen diren adierazpen batzuk ez dira mesedegarriak izan, hain zuzen ere, presentzia nazionalista nabaria duten AAEEak eroso egoteko justizia konstituzionalaren sistemarekin⁹⁷.

Aipaturiko guzti hau aintzat harturik, modu honetan, alderdi politiko nazionalistek gatazkak konpontzeko mekanismoa bera zalantzan jartzen dute, erakundea zalantzan jartzeko estrategia orokorraren barruan⁹⁸.

3.3.1. AUTONOMIA ERKIDEGOEN PARTE-HARTZEA HAUTAKETA-SISTEMAN ETA HARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA KONSTITUZIONALA

⁹⁵ÁLVAREZ RUBIO, J.J., “La relación del País Vasco con España en materia de estructuras normativa y gobernanza. De la LOAPA a la relectura constitucional. El binomio derecho y política”, GOIRIZELAIA ORDORIKA, Iñaki, ZELAIA GARAGARZA, Maite (Zuz.), *¿Tiene coste para el País Vasco su dependencia de España? Algunas claves de la relación entre el País Vasco y España, Ba al du Euskadirentzat kosturik Espainiaren duen dependentziarik? Euskadi eta Espainiaren arteko harremanaren gako batzuk*, Dykinson S.L., Euskadi, 2018.

⁹⁶Nolanahi ere, *Convergència i Unió* alderdi politikoak, ahal izan duen hainbat alditan, bere baza politikoak "jokatu" ditu Konstituzio Auzitegiko magistratuak izendatzeko prozesuan. PÉREZ TREMPES, Pablo, *op. cit.*, 20. or.

⁹⁷*Idem.*

⁹⁸*Idem.*

3.3.1.1. Konstituzio Auzitegiko Lege Organikoaren 6/2007 Erreforma Autonomia Erkidegoen ordezkariak bermatzeko

2005eko azaroan Diputatuen Kongresuan KALO erreformatzeko proiektua sartu zen, baina proiektu horrek, funtsean, babes-errekurtsoari buruzko erreforma tekniko bat zekarren. Lehen une horretan beraz, Gobernuak Auzitegiaren lana erraztuko zuten hobekuntza tekniko batzuk sartu nahi zituen, 1979an diseinatutako Espainiako justizia konstituzionalaren ereduari nabarmen bat eragin gabe. Hala, hasiera batean planteaturiko erreforma honek ez zuen ez magistratuak hautatzeko moduaren, ez gerora aipatuko ditugun KAE 49/2008⁹⁹ eta 101/2008¹⁰⁰ Epaietan Auzitegian bertan aurkaratuko ziren gainerako gaien inguruko erreforma bat egitean proposatzen; izan ere, ez ziren lehen bertsio horretan zirriboratu ere egin¹⁰¹. Beraz, KALOn erreforma bestelako arrazoi batzuegatik hasi bazen ere, gerora magistratuen aukeraketa lurralde-partaidetzara zabaldu zen¹⁰².

Hala ere, erreformaren muinaren aldaketa baino lehen, KA beraren barnean, Gobernuak hasiera batean aurkeztutako erreforma-proposamenaren oso antzekoa sustatzen aritu ziren; izan ere, Auzitegiaren presidente desberdinak babes-errekurtsoen ebazpena arintzeko Lege Organikoaren aldaketa eskatzen aritu ziren. Paraleloki, doktrina konstituzionalistak etengabe sortzen zituen OOEEen inguruko babes-errekurtsoaren erreformaren aldeko jardunak¹⁰³. Era berean, azpimarratzekoa da, Oinarrizko Eskubideen gaietik at, KAREN magistratuen izendapenean AAEEK parte hartzearen gaia aspalditik eztabaidatzen ari zen gaietako bat ere bazela. Esate baterako, 2001ean, Auzitegiaren zati bat berritzeko hitzaldian, orduko presidentek jorratu beharreko arazoaren artean, lurralde-ordezkaritzaren defizita aipatu zuen. Honez gain eta esparru politikoari erreparatuz, ildo horretako hainbat ekimen parlamentario aurkeztuak ziren, pisu instituzional desberdinarekin¹⁰⁴.

⁹⁹2008ko apirilaren 9ko 49/2008 KAE, EBO 117 zkia., 2008ko maiatzaren 14a.

¹⁰⁰2008ko uztailaren 24ko 101/2008 KAE, EBO 200 zkia., 2008ko abuztuaren 19a.

¹⁰¹Lege-proiektua, 121/000060, 1. artikulua, 27. paragrafoa. (GNBO, Kongresua, A Seriea, 60-1 zkia., 2005ko azaroaren 25ekoa). URÍAS MARTÍNEZ, *op. cit.*, 208. or.

¹⁰²*Idem.*

¹⁰³*Ibidem*, 209. or.

¹⁰⁴Hala, Kataluniako Parlamentuak 2002an aurkeztutako KALOk 16.2 artikulua erreformatzeko lege-proposamen horren arabera, Senatuak izendatutako lau magistratuak

KALoren erreforma onartu aurretik, baina lege-proiektua aurkeztu ondoren, kontzeptu horiek eta antzeko beste batzuk Kataluniako AERen berriaren 180. artikuluan¹⁰⁵ islatu ziren. Bertan ezartzen zenez, Kataluniako Generalitateak KAko magistratuak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak izendatzeko prozesuetan parte hartuko zuen, legeek edo, erregelamenduzko ordenamenduak xedatzen zutenari jarraiki. Gauzak horrela, auziak garrantzi juridikoa hartu zuen, izan ere, legegintzaren koherentzia bermatzeko AAEEK magistratuen izendapenean parte-hartzea beharrezkoa bihurtu zen. Horrekin bat etorriz, zuzenketen izapidean hainbat proposamen aurkeztu ziren, Senatuak izendatutako KAko magistratuak Autonomien Batzorde Orokorrek proposatzeko ideari berriro heltzeko, AAEEtako botere legegileei kontsulta egin ondoren¹⁰⁶.

Idea horrek nolabaiteko oihartzuna izan zuen pizturik zeuden eztabaidei zegokienez, askotariko ikuspegiak bereizten zirelarik, bai alde eta bai kontra ere¹⁰⁷. Orokorki, adostasuna zen nabari KAren inguruan sentsibilitate autonomiko handiagoa eragiten saiatzean, baina, desadostasunak ere sortzen ziren Senatuan izaeraren aldaketa bat bultzatzea nahikoa ote zen edo KALOA erreformatzea beharrezkoa ote zen pentsatzen zutenen artean. Horrela, beste estatu federal batzuetan lortutako esperientzia eta jurisprudentzia konstituzionala asimilatzeko elementu integratzaileak, Alemanian bezala, alde agertu ziren. Aitzitik, Auzitegiaren jurisdikzio-lanaren politizazioa susta zezakeela argudiatzen zen¹⁰⁸.

Ganberako Autonomien Batzorde Orokorrek proposatuta izendatu behar ziren, AAEEtako parlamentuei kontsulta egin ondoren. GNBO, Kongresua, 2002ko uztailaren 19a. Geroago, 2004ko apirilean, Kataluniako Parlamentu Taldeak Senatuan aurkeztutako 622/00002 Lege Proposamenean berretsi zen proposamena. *Idem*.

¹⁰⁵Lege Organikoa 6/2006, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutuaren erreformari buruzkoa (EBO 172 zkia., 2006ko uztailaren 20koa).

¹⁰⁶17. zuzenketa, Eusko Legebiltzar Taldearena; 44. zuzenketa, Esquerra Republicanaren Legebiltzar Taldearena; 90. zuzenketa, Kataluniako Parlamentu Taldearena. Horren inguruan Joaquín Urías ikus daiteke, "Nota sobre los conflictos territorial ante la reforma de la LOTC", Konstituzio Auzitegiaren Erreforma, ACERen V. kongresuaren aktak, Pablo Pérez Trespsek koordinatua, Valencia, Tirant lo Blanch, 2007, 925-939 or. URÍAS MARTÍNEZ, *op. cit.*, 210. or.

¹⁰⁷CASTELLÀ ANDREU, Josep Maria, "La diferente posición del Estado y las Comunidades Autónomas ante Tribunal Constitucional", GARCÍA HERRERA, Miguel Ángel (Zuz.), *Constitución y democracia: 25 años de Constitución democrática en España*, Bilbo, 2005, 537. or. e.o.

¹⁰⁸URÍAS MARTÍNEZ, *op. cit.*, 211. or.

Gauzak horrela, Kataluniako AE berriaren inguruan sortutako egoera politikoak eta horien ondorio ziren alderdi politikoaren arteko azpi-banaketak bideratuta, gehiengo parlamentario baten ostean 6/2007 Lege Organikoan¹⁰⁹ onartu zen. Hala, KALoren 16.1 artikulua AAEEtako parlamentuei esleitzen die zuzenean hautagaiak aurkezteko eskumena. Beste modu batera esanda, artikulua honek ezartzen duenez, maiatzaren 24ko 6/2007 Lege Organikoak egindako aldaketaren ondoren, Senatuari dagozkion magistratuak AAEEtako parlamentuek egindako proposamenetan oinarrituta hautatuko dira. Beraz, aldaketa honen ondorioz, Ganbera honek beharrezkotzat jo zuen bere Erregelamendua aldatzea, 2007ko azaroaren 22ko datarkekin¹¹⁰. Idazkera berriaren arabera, zazpigarren paragrafo berri bat sartu zen Senatuaren Erregelamenduaren 184. artikuluan, KAren osakeratarako Senatuari dagokion lau magistratuaren aukeraketa prozedura espezifikoa bat jarraiki egingo zela xedatzen zuena. Laburbilduz, planteatzen zen jarraibidea EK-ko 159. artikulua zehazten zuena zen, baina, hautagaiak Erregeari proposatu baino lehen, AAEEtako parlamentuen esku-hartzea galdatzen zen, hauei jarraitu beharreko prozeduraren nondik norakoak aditzera eman behar zitzaielarik.

Bestalde, nahiz eta gure gaiari zuzenean loturik ez egon, beste aldaketa batzuk ere planteatu ziren KAko magistratuak izendatzeko prozesuan. Hala, 16. artikuluko bigarren paragrafoak xedatzen du Kongresuak eta Senatuak proposatutako hautagaiek aldezturik agertu beharko dutela dagozkien batzordeen aurrean, dagozkien erregelamenduetan xedatutako moduan. Era berean aipatzen denez, KAko magistratua bederatzi urterako izendatuko da, Auzitegia hiru urtetik behin heren batez berrituko delarik. Une horretatik aurrera, lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dira, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Presidentearen eta presidenteordearen agintaldia ez badator bat Konstituzio Auzitegiaren berritzearekin, agintaldia luzatu egingo da, magistratu berriek kargua hartzen duten unean amaitu arte. Laugarren eta azken atalak xedatzen duenari jarraiki, ezin izango zaio Erregeari berehalako beste aldi baterako magistraturik proposatu, salbu eta kargua hiru urte baino gehiagorako bete badu.

¹⁰⁹Lege Organikoa 6/2007, maiatzaren 24koa, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa erreformari buruzkoa (EBO 125 zkia., 2007ko maiatzaren 24koa).

¹¹⁰Senatuko Erregelamenduaren Erreforma, 184. artikuluan (EBO 284 zkia., azaroaren 27koa). Senatuko Erregelamenduaren Testu Bateratua, Senatuko Mahaiak onartua, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, 1994ko maiatzaren 3ko bileran (EBO 114 zkia., 1994ko maiatzaren 13koa).

3.3.1.2. Konstituzio Auzitegiaren 49/2008 eta 101/2008 Epaiak

Aipatu bezala, 2008an, 6/2007 Lege Organikoak KALOREn erreformaren harira, KAK bi epai eman zituen AAEEK KAKo magistratuen izendapenean parte hartzeko mekanismo berriaren konstituzionaltasunari egindako aldaketak ebazteko. Lehena, 49/2008 Epaia¹¹¹ izan zen eta, honek, erreformaren konstituziozkotasunaren inguruan erabaki zuen. Bigarrena, berriz, 101/2008 Epaia¹¹² izan zen, eta honek, aurrerago adierazi den Senatuko Erregelamenduko 184. artikuluan egindako erreforma aztertu zuen. Segidan, bi sententzia hauek sakontasun gehiagorekin aztertuko dira, baina, epai horietan esandakoaren azterketa juridikoaren aurretik, eman ziren testuinguru politikoaren kronika labur bat egin behar da, zenbaitetan ikuspegi politikorik gabe arlo juridikoa ulertezina baita, eta kasu hau ez da gutxiago izango¹¹³.

Horrela, une hartan, testuingurua Kataluniako Estatutuaren onarpenak markatzen zuen, horrek banaketa politikoa eta ideologikoa sortu zuelarik Espainiako Estatuan; hala, errealitate berri honek eragina izan zuen Auzitegian, haren jardueran batez ere. Modu honetan, hainbat hilabetetan zehar, iritzi publikoak eztabaida bizia izan zuen Kataluniako AE berriaren alde zeudenen eta haren aurka zeudenen artean, komunikabideek asko landu eta zabaldu zutelarik egoera nahasi hau. KALOREn eta Senatuaren araudiaren reformekin lotutako epaiak borroka horren erdian eman ziren, hasierako eta funtsezko liskar gisa aurkeztu zirelarik¹¹⁴.

Garai hartako iritzi publikoarentzat, testuinguru politiko hori adierazpen bakar batekin definitu zen: Kataluniako AERena¹¹⁵. Hain zuzen ere, Espainiako Estatuan Lege Organiko hori onartzearen ondorioz gertatu zen zatiketa politiko eta ideologikoa izugarri eragin zion aztergai dugun organo konstituzionalari; eta, neurri batean, prozesuko azpijokoen ondorioz, beste hein batean, bere ahuleziaren ondorioz, banaketa hori bera kutsatu zitzaion. Gauzak horrela, hilabete askotan zehar, KAREN jarduera, oro har, Kataluniako AERen berriaren defendatzaileen eta aurkarien arteko benetako guda

¹¹¹2008ko apirilaren 9ko KAE 49/2008, EBO 117 zkia., 2008ko maiatzaren 14a.

¹¹²2008ko uztailearen 24ko KAE 101/2008, EBO 200 zkia., 2008ko abuztuaren 19a.

¹¹³URÍAS MARTÍNEZ, *op. cit.*, 207. or.

¹¹⁴*Ibidem*, 208. or.

¹¹⁵Lege Organikoa 6/2006, uztailearen 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutuaren reformari buruzkoa (EBO 172 zkia., 2006ko uztailearen 20koa).

gisa agertu zen publiko orokorraren aurrean, komunikabideetatik puntualki transmititu zena. Hala, KALoren eta Senatuaren Araudiaren erreformei buruzko epaiak egoera ilun horren une gorenean eman ziren, eta lehenengo liskar erabakigarri gisa aurkeztu ziren.

Behin egoera sozial, politiko eta juridikoan azalpen labur bat egin ondoren, KAK eman zituen epaiak aztertzerara pasako gara. Sarrera gisa, aurreratuko dugu KAE 49/2008, apirilaren 9koak, eta KAE 101/2008, 2008ko uztailaren 24koak, berretsi egin zutela KALoren 16.1 artikulua eta Senatuaren Erregelamenduaren 184.7 artikulua konstituzionaltasuna, konstituzio-kontrakotasuneko bi errekurso ebatzi ondoren¹¹⁶.

KAE 49/2008 dagokionean, 2007ko uztailaren 27an, konstituzio-kontrakotasun errekurtoa aurkeztu zuten Kongresuko Talde Popularreko hirurogeita zortzi diputatu¹¹⁷. Helegite hori, aurrez azertu diren KALoren 6/2007 Erreformako 16.1 eta 16.3 artikuluen idazketa berria aurkaratzean oinarritzen zen. Hala, horiek aurkaratzeko argudio nagusia, EK 72. artikuluan¹¹⁸ ezarritakoaren ustezko urraketan oinarritzen zen, zehazki, honek agintzen duenez, Ganbera bakoitzak bere arauak eta erregelamendua ezartzen dituen heinean, EK-k Senatuaren antolaketa propioari erreserbatutako gaia zela irizten baitzuten. Era berean, hautaketa-sistemaren oinarri juridikoa den EKren 159. artikulua ere aipatu zen, jakinaenez, honek Senatuari lau magistratu konstituzionalen izendapen zuzena, eskusiboa eta askea ematen baitio¹¹⁹.

2008ko urtarrilak 10ean, berriz, Senatuaren Talde Popularreko berrogeita hamaika senatarik konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa aurkeztu zuten¹²⁰, 2007ko azaroan onartutako Senatuaren Araudiaren erreformaren aurka. Erreforma horrek Senatuaren

¹¹⁶SÁNCHEZ BARRILAO, J.F., “La Participación de las Comunidades Autónomas en la Elección por el Senado de los Magistrados Constitucionales”, UNED, *Teoría y Realidad Constitucional*, 23. zk., 2009, 395 or.

¹¹⁷Hain zuzen ere, 6729-2007 zenbakidun konstituzio-kontrakotasun-errekurtoa Ignacio Astarloa Huarte-Mendicoa jaunak eta Kongresuko Parlamentuko Talde Popularreko beste hirurogeita zazpi diputatu aurkeztua izan zen. *Idem*.

¹¹⁸Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia, 1978ko abenduaren 29koa).

¹¹⁹URÍAS MARTÍNEZ, *op. cit.*, 214. or.

¹²⁰María Rosa Vindel López andreak 269-2008 zenbakiko konstituzio-kontrakotasun helegitea aurkeztu zuen 2008ko urtarrilaren 10ean, Senatuaren Talde Parlamentario Popularreko beste berrogeita hamar senatari bateko komisario gisa. Errekurto hori Senatuaren Erregelamenduaren 184. artikulua 7. paragrafo berriaren aurka zuzendu zen, 2007ko azaroaren 21ean onartutako Erreformaren artikulua bakarrez xedatutakoaren arabera. *Ibidem*, 235. or

Erregelamenduaren 184.7 artikulua¹²¹ sartu zuen, KALOren aurretiazko erreformarekin bat etorriz. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan honetan, bertako 16.1 artikulua idazketa berriari buruz aurrez planteatutako argudioak errepikatu ziren, aurrez aipaturiko epaiean jada ebatziak izan zirenak; baina, horrez gain, Senatuaren erregelamenduko pretzeptuari buruzko argudio espezifikoko berriak sartu ziren, izan ere, hau zen helegite honen oinarria. Hala, argudio berri horiek bakarrik jorratuko zituen KAK, EK-ko 159. artikulua erabiliko du konstituzionaltasun-parametro gisa¹²². Aurreko sententziaren ildoari beretik, KAK konstituzio-kontrakotasu hau ezestea erabaki zuen.

Eta, aztertu berri ditugun KAren epaiak egiturari eta ikuspegiari dagokienez bat ez datozten arren, antzekoa prententsioa izanik, elkarrekin aztertzen dira. Horrela, biak ondorio berdina ezarri zutela esan daiteke: AAEEtako parlamentuen proposamenak lotesleak ez diren heinean, ez dela Senatuaren autonomia mugatzen.

3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoaren paradigma

Arestian aipatu den moduan, AAEEK asko dute esateko KAren inguruan, bereziki bertan sumatzen duten lurralde errepresentazioa faltari dagokionean. Eta, alderdi politiko nazionalistek presentzia duten lurraldeetan ordezkari falta hau nabariagoa dela baieztatu genezake, hori delarik EAEn kasua.

Aurreko atalean KALOren eta Senatuaren Erregelamenduan 6/2007 Erreforma aurreikusitakoa betetzeko prozedura bat egokitu behar izan zela ikusi da, bertan funtsezko aldaketa eta berrikuntzak sartu zirelarik. Honez gain, AAEEtako parlamentuekin kontsultak egin ziren, eta, hauen ondorioz, hiru taldetan sailka daitezke, horiek txertatzeko gerora jarraitu dituzten prozedurak: lehenik, prozedura espezifikoko bat arautu duten parlamentu autonomikoak bereizten dira; bigarrenik, karguak hautatzeko edo izendatzeko beren erregelamenduetan jasotako xedapenak baliatu dituzten parlamentu autonomikoak daude; eta, azkenik, gaiari buruz hausnartzen ari direnak parlamentu autonomikoak, orain arte ideia zehatzik izan gabe, eta aurkeztu ez

¹²¹Senatuko Erregelamenduaren Testu Bateratua, Senatuko Mahaiak onartua, Bozerramaileen Batzarrari entzun ondoren, 1994ko maiatzaren 3ko bileran (EBO 114 zkia., 1994ko maiatzaren 13koa).

¹²²URÍAS MARTÍNEZ, J.P., *op. cit.*, 236. or.

dituztenak hautagai bat Senatuan. Hala, EAE¹²³ lehenengo multzoan sartuko litzateke, Nafarroarekin¹²⁴ batera¹²⁵.

Hala, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2008ko irailaren 30ean egindako bileran, Lehendakaritzaren ebazpen bat onartu zuen, KALOk, zeina 6/2007 Lege Organikoarengandik aldatu izan zenak, Senatuak proposatutako magistratuak AAEEtako legegileek aurkeztutako hautagaien artean aukeratu behar direla ezartzen duen, Ganberaren Erregelamenduak ezarritakoaren arabera. Senatuko Erregelamenduak batzar legegile bakoitzari bi hautagai aurkezteko aukera ematen dionez, eta Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduak horri buruzko xedapenik ez duenez, prozedura horretarako arauak ezartzea erabaki zen¹²⁶.

Gauzak horrela, ondokoak izan ziren onarturiko arauak: alde batetik, hautagai-zerrendak aurkeztea. Modu honetan, parlamentu-taldeek bi hautagai proposa ditzakete gehienez, eta hautagai horiek EK-k eta KALOk ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Proposamen horiek idatziz aurkeztu behar dira, betekizunak egiaztatzen dituzten agiriekin eta hautagaiaren merezimenduen zerrenda batekin batera. Azkenik, Legebiltzarreko Mahaiak egiaztatuko du hautagaiak baldintzak betetzen dituztela, eta, hala bada, proposamenak onartu egingo dira, osoko bilkuran azter daitezten. Bigarren hautaketari dagokionean, aldiz, zehaztu zen bozketa boto-paper bidez egingo da, eta parlamentari bakoitzak bi izen izan ditzake. Boto gehien dituzten bi hautagaiak hautatuko dira. Horrela, Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da berdindutako hautagaien artean. Berdinketak jarraitzen badu, hirugarren bozketa egingo da. Berdinketak jarraitzen badu, berdinketan parte hartzen duten hautagai guztiak baztertutzat joko dira¹²⁷.

¹²³Eusko Legebiltzarreko Lehendakaritzaren 2008ko irailaren 30eko Ebazpen Orokorra, Konstituzio Auzitegiko magistratugaiak Senatuan aurkezteko prozeduraren arauak onartzen dituena.

¹²⁴Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Mahaiarena, 2007ko abenduaren 10ekoa, Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko bi hautagaiak izendatzeko arauak onartzen dituena, Nafarroako Parlamentuari Senatuan aurkeztea dagokiona.

¹²⁵VILLAGRASA CID, María Blanca, “La normativa seguida por los Parlamentos autonómicos para presentar candidatos a magistrados del Tribunal Constitucional ante el Senado”, Revista Parlamentaria de la Asamblea de Madrid aldizkaria, 2006, 399-400. or.

¹²⁶*Ibidem*, 418. or.

¹²⁷*Ibidem*, 419. or.

4. HAUTAKETA-SISTEMAREN ALDERDI GATAZKATSUENAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN PARTE-HARTZEAREN IKUSPEGITIK

Espainiar ordenamendu juridikoak aurreikusten duen berme-sistemaren kunplimendu ezak eta AAEEren lurralde-ordezkaritza faltaren errealitateak negatiboki eragiten du Estatuko sistema konstituzionalean. Beste hitzetan, arazo juridiko-instituzional honen oinarrian dauden arrazoiak hainbat direla zehaztu daiteke, denek Espainiako sare konstituzionalean eragina dutelarik. Gradu Amaierako Lan honen gidalerroari jarraiki, hautaketa-sistemaren alderdi gatazkatsuenak, bereziki, AAEEren partaidetzari dagokienak direla zehazturik, horien azterketa egitera pasako gara.

Jarraian analizatuko diren alderdi hauetako batzuk, esan genezake, ez daukatela lotura zuzenik AAEEren problematikarekin, bai ordea, zeharkakoa eragina. Puntu honetan, magistratuen jatorria Estatuko hiru botereetatik, KAko kide-kopurua eta magistratuen aukeraketan atzerapena dira landuko diren ideiak, hurrenez-hurren. Hala, gure analisia zuzenean gaiari lotuta daudenetatik hasiko da, zeharkako eragina daukatenak bukaerarako utziz.

4.1. MAGISTRATUEN JATORRIA: ESTATUKO HIRU BOTEREEN ERAGINA

KA osatzen dutenen magistratuen jatorri hirukoitzari helduko zaio orain. Jakina denez, Arau Goreneko 159.1 artikulua ezartzen du epaileen proposamenean gainerako organo konstituzionalek hartzen dutela parte, hau da, Gobernuak, bi ganberek eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.

Printzipioz, egoera hori, doktrinaren zati batek abstraktoki hartzen du, hori positibotzat jo behar dela ulertuaz; izan ere, Auzitegiaren izaera integratzailea areagotu egiten dela adierazten dute ideia honen defendatzaile direnek. Baina, doktrinaren beste zati batek, ordea, kritika negatibo bat garatzen du aurreikusita dagoen hautaketa-sistema honekiko, akats ezberdinak antzematen dituztelarik¹²⁸.

¹²⁸GARCÍA-PELAYO ALONSO, Manuel; FERNÁNDEZ SEGADO, *op. cit.*, 23. or.

Horietako bat, organo politikoek aukeraketa prozesuan duten pisua handiegia dela da, jardunbide desegoki baten gertaera ohartaraziz: azpi-banaketarena. Espainiako doktrina konstituzionalak ohartarazi du, honen bidez KAren hautaketa-sistema politizatzeke arriskua dagoela. Hala ere, politizazioa, ez da ulertu behar Auzitegiaren esku jartzen diren gaien balorazio politikorik eza bezala, baizik eta ebazpenen izaeraren aldaketa posible gisa, ezagutza juridikoaren adierazpen izatetik borondate politikoaren adierazpen izatera pasatuko bailirateke¹²⁹.

Praktika honen sorrera, 2001ean, KAren magistratuen hautaketa Kongresuari zegokionean hasi zen. Izan ere, garai horretan BJKOren eta Kontu Auzitegiaren kideak aukeratzeko unea ere bazen; hala, tentsio ugari hilabeteen ondoren, blokeo hori gainditzea lortu zuen Ganbera honek, alderdi politiko popularrak eta alderdi politiko sozialistak aurrera eraman zuten negoziazio nahasi bati esker¹³⁰.

Parlamentu-sistema bateko botereen arteko harremanak alderdi politikoaren bitartez bideratzen diren kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu benetan kezkarria den aukera bat dagoela: bi Ganberetan gehiengo duen alderdi bakar batek, eta, ondorioz, botere betearazlea ere baduenak, erabateko kontrola egikaritu ahal izatea magistratu konstituzionalen izendapenaren gainean. Horrek mehatxu larria ekarriko lioke Konstituzioaren interpretatzaile gorenak bete behar duen konstituzio-orekaren funtzioari. Eta, horri beste gogoeta garrantzitsu bat gehitu behar zaio: Botere Judiziala gutxietea¹³¹.

Testu Nagusiak proposatzen duen eredia desegokia ez bada ere, bermeen eta jardunbide egokien zirkuitua osatzen duten erakundeak erregulatzen dituzten arauetako errespetu leialik gabe, ezinezkoa da ordenamendu juridikoan aurreikusitako behar bezala funtzionatzea. Beraz, Legeak jasotzen duena jarraituaz, Auzitegiko kideak hautatzeko

¹²⁹Alde batetik, Trujillo irakasleak kezka adierazi du epaileak izendatzeko proposamenetan eragin politikoak izan daitezkeelako eta Burdeauk aipatu du Konstituzio Auzitegiak, bere osiera dela eta, joera politikoa duela. Beste alde batetik, ordea, La Pergola irakaslearen ustez ezaugarri hori positiboa da eta De Esteban irakaslea ados dago Auzitegian eragin politikoa izatearen ideiarekin, Legebiltzarraren osiera islatzen duela eta Konstituzioaren ildotik hartutako erabakien baliozkotasuna bermatzen duela argudiatuz. *Idem*.

¹³⁰VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 33. or.

¹³¹FERNÁNDEZ SEGADO, *op. cit.*, 23. or.

orduan adostasuna bilatzeak partzialtasun-susmotik aldetzen gaitu, hautagaiak interes alderdikoietatik urrunduz.

Gehiengo kualifikatuari dagokionean, Kongresuko, Senatuko eta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 6/1985 Lege Organikoaren ondoren, Alemaniako, Italiako eta Portugaleko magistratuen proposamenak berresteko gehiengo kualifikatuaren beharrak Alemanian, Italian eta Portugalen ezarritako ereduari jarraitzen dio. Espainian, xedapen hori, Kongresuan zein Senatuan aplikatua, oso modu positiboan jaso zen. Honen helburua argi dago: hautagaiak Parlamentuaren babes sendoa izango dutela bermatzea¹³². Beste hitzetan, gehiengo zabalaren babesa lortzeko, normalean, gehiengoaren eta oposizioaren arteko elkar ulertzea beharrezkoa izango dela; horrela, alderdi politikoen arteko akordioa bultzatuko da, edo, gutxienez, pisu espezifiko handiena dutenen artekoa¹³³.

Hala ere, azpi-banaketaren mekanismoarekin, kuota-sistema bat ezarri da talde parlamentarioen artean, eta horrek, praktikan, desagerrarazi egiten du talde bakoitzak proposatutako hautagai guztien gaitasun onartuaren gainean egin dezakeen kontrola. Beraz, ez da erabaki zuzurra kuoten sistemarekin errazagoa dela pentsatzea, nahiz eta ez den nahitaez hala izan behar, kidetasun politiko edo ideologiko hipotetikoa beste irizpide batzuen gainetik nagusitzea, mekanismo horrek hautagai jakin bat aurrera ateratzeko aukera errazten baitu, gainerako talde parlamentarioek zalantzan jarri ezin badute ere.

Modu honetan, talde bakoitzak hautagai bat edo bi aukeratuko ditu, edo bat ere ez, Ganberako ordezkartzan duen pisuaren arabera. Hasiera batean, beste taldeentzat onartezinak ziren hautagaien betoa errespetatzen zen, eta horrek arbitrariotasun posibleak mugatzen zituen. Baina garatu egin da taldeak hautagai bat askatasunez izendatzeko ideia, bere botere-kuotaren barruan, elkarrekiko betorik onartu gabe. Baina, azpi-banaketaren kontzeptuak ez du bermatzen izendatutako hautagaien bikaintasuna, ezta inpartzialtasuna ere, gehiengo kualifikatuaren logikaren aurrean. Gainera, aurrerago

¹³²Giustino D 'Oraziok azaldu duenez, neurri horren helburua da "hautaketaren despolitizazioa lortzea, edo, hobeto esanda, politizazio orekatu edo neutralizatua". *Ibidem*, 24. or.

¹³³*Ibidem*.

aztertuko den arazo batekin bat egiten du: izendapenetan izandako atzerapen luzeek ere kalte egiten diotela Auzitegiaren inpartzialtasun-itxurari.

Hautaketa-eredu honen abiapuntua 2001eko azaroan Kongresuko taldeko magistratuak berritzetik erator daiteke. Izan ere, brikuntza hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko eta Kontuen Auzitegiko kideen berritzearekin batera, hilabeteetan zehar izendapena blokeatu zuten tentsio askoren ondoren, azkenean ebatzi zen, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak, besterik gabe, jarritako trukeetan oinarritutako akordio batera iritsi zirenean; hain zuzen ere, popularrek bermatutako hautagaietako batek sozialisten betoa gainditzea lortu zuen, haiek, behar bezala, hautagai horien betoa kendu eta Kontuen Epaitegian plaza betetzeko.

Esanguratsua da gehiengo kualifikatua eskatzeak ez duela adostasun handirik sortzen aspalditik hautagaien izendapenetan, hori lehenengo aldiak bakarrik lortu zelarik. Lehenengo Konstituzio Auzitegia 1980an aukeratu zen, adostasun oso baten bidez, eta bertako kideek ospe profesional ukazina zuten. Haiek sortu zuten oinarrizko gaietan lehenengo jurisprudentzia konstituzionala, besteak beste: boterearen eta lurralde-banaketaren gaien, oinarrizko eskubide eta askatasun publiko askoren eduki konstituzionalen eta Zuzenbidearen iturri-sistema eta konstituzio-organoen funtzionamenduaren ingurukoa¹³⁴.

Laburbilduz, eredu konstituzionalaren logika aldatzen duen praktikarik okerra da, Konstituzio-araugintzak eta -normaltasunak urrunegi uzten dituzte bideak, eta berriro bildu beharko lirateke, hautagaien gehiegikeriak eta izendapen-prozesuan duten independentziak sortutako kezka ez apaltzeko.

¹³⁴«KA egun batean izan zuen ospe handia berreskuratzea nahi bada, hasierako praktikara itzuli behar da, hau da, UCD eta PSOEek batera aukeratzera eraman zuen praktikara, hautagai bakoitzaren gainean [...] kualifikatu eta legelari handi gisa aintzatetsitako guztien adostasun bereziarekin, eta erabat independenteak, hargatik eragotzi gabe, jakina, haien ideologia politikoak eta sentsibilitate juridikoak desberdinak izatea». FERNÁNDEZ-MIRANDA CAMPOAMOR, 2010: 55. VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 32. or.

4.2. KONSTITUZIO AUZITEGIA OSATZEN DUTEN KIDE-KOPURUA

EKren 159.1 artikulua eta KALOk 5. artikulua zehazten dutenez, Auzitegia hamabi kidez osaturik dago. Baina, formula honek arazo bat dakar, batez ere KAK hartu behar dituen erabaki juridikoetan berdinketa kasutan: zenbaki bikoitia da. Hau, eztabaida konstituziogilean jada ohartarazi zen gaia izan zen, non *Sánchez Agesta* eta *Ollero Gómez* senatariak ohartarazi zuen magistratu-kopuru bakoiti baten komenigarritasunaren alde¹³⁵. Arazo nagusia da, beraz, nola konpondu eztabaidetan sor daitezkeen berdinketak. Gai horri heltzeko, Espainiako ereduak neurri berritzaile bat hartu du bere lege-sisteman: Konstituzio Auzitegiko presidenteari kalitatezko botoa edo boto erabakitzailera esleitzea KALOk 90.1 artikulua araberaren arabera. Esan bezala, xedapen hori tresna berritzaile bat da Espainiako zuzenbidearen barruan eta kide anitzeko organoaren eraginkortasuna eta funtzionamendu arina bermatzeko xedea du. Dena den, oso polemikoak diren lehen esperientzia batzuen ostean, gutxitan erabiltzen da kalitatezko boto hori.¹³⁶

Kritika planteatzen da, kalitatezko boto hori eman dezakeen epaileen jatorriagatik; izan ere, hiru botereetako bat, epaile hori aukeratu duena, beste baten gaineratik gailentzen da, haren erabakiak beste magistratuenak baino pisu gehiago baitu. Eta, modu honetan, magistratuen arteko ezberdintasuna bultzatzen da. Hala, hurrengo puntuan, ondorio eta proposamenetan, arazo honen inguruan suertatzen diren irtenbideak azalduko dira.

4.3. MAGISTRATUEN HAUTAKETAN ATZERAPENA

Magistratuak izendatzeko sistemari lotutako beste arazo garrantzitsu bat hautaketaren atzerapena da. Orokorrean, Espainiako egoera politikoaren ezaugarri den konfrontazio zorrotzaren ondorioz, ezinezkoa izan da agintaldia amaituz joan den konstituzio-organoetako kideak berritzea, eta, ondorioz, titularrek beren funtzioei eutsi

¹³⁵FERNÁNDEZ SEGADO, *op. cit.*, 22. or.

¹³⁶RUMASAREN desjabetzea, komunikabide batzuetan tresnaren erabilera oso kritikatu izan zen. GARCÍA ROCA, Javier, “La Jurisdicción Constitucional”, *Lecciones de Derecho Constitucional*, Civitas, Nafarroa, 2023, 220. or.

diete (kasu batzuetan onargarria den beste epe batez). Horren arrazoia izan daiteke duela hamarkada bat baino gehiagotik politikan gertatu den giro politikoaren pixkanakako gogortzeak ondorioak izan dituela¹³⁷.

EK 159.3 artikulua jasotzen duenez, Auzitegia herenka berritzen da hiru urtez behin¹³⁸. Testu Nagusiak proposatzen duen irtenbide horrek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, Auzitegiaren osaeran aldaketa nabarmenak saihestea, nolabaiteko jarraitutasuna mantenduz; eta, bestetik, aukera ematen du gehiengo parlamentario berriek pixkanaka eragina izan dezaten Konstituzio Auzitegiaren profilean. Era berean, Estatuko hiru botereen autoritatearengandik babesteko ere balio du.

AAEEen parte-hartzeari dagokionean, arazo instituzional honek garrantzia handia du; izan ere, honek blokeo bat suposatu dezake hauek egikaritu beharreko funtzio arruntetan. Hori dela eta, gai honen transzendentziari esker, KA partzialki berritzeko sistemak, magistratuak hautatzeko iturrien aniztasunarekin batera, lege-erronka ugari planteatu zizkion konstituziogileari. Izan ere, Hori garrantzitsua da gizartearen, EK oinarrian dauden baloreen eta haren interpretazioaren arteko harremana kontuan hartuta eta baita KAK bere gain hartzen duen interes-bitartekariaren eginkizuna gauzatu ahal izateko ere¹³⁹.

Arazo hau, beraz, talde parlamentarioen artean kuotak banatzeko akordiorik ezari lotuta dago, baita ildo ideologiko jakin baten alde dagoen Auzitegiari jarraipena emateko borondateari ere. EKK argi ezartzen du haren 159.3 artikuluan KAKo magistratuak bederatzi urterako izendatzen direla, eta hauek herenez-heren hiru urtean behin berrituko direla. Beraz, arau honen aurka doan edozein egoera EKren aurkakoa da, horrek esan nahi duelarik Estatuko zenbait boteren praktikak EKren aurkakoak direla, ez baitituzte garaiz izendatzen berritzea dagokien lau magistratuak¹⁴⁰.

¹³⁷SANTAMARÍA PASTOR, Juan Alfonso, “La *prorogatio* de los órganos constitucionales. Apuntes mínimos sobre un tema que no lo es”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 84. zk., 2008, 11. or.

¹³⁸Formula hori klasikoa bada ere, Frantzia baino ez dugu aurkitzen; Italian, aldiz, auzitegiko magistratuak ez dira blokean berritzen, baizik eta pixkanaka, bakoitzak bere agintaldia amaitu ahala. FERNÁNDEZ SEGADO, *op. cit.*, 25. or.

¹³⁹VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 33. or.

¹⁴⁰*Ibidem*, 34. or.

Egoera hori ohikoa bihurtu da azken urteotan, batez ere Diputatuen Kongresuari eta Senatuari dagokien berritzeetan. Batzuetan, atzerapen hori gehiegizkoa izan da, 2010ean gertatu zen bezala, eta beharrezko bi berritzeei gainjarri baitzitzaien. Horren ondorioz, hiru urtean behin Auzitegiaren herena berritzea ezartzen duen konstituzio-mekanismoa helburuz galdu da. Mekanismo horren helburua jurisprudentzia-doktrinari nolabaiteko jarraipena ematea da, eta aukeraketa hainbat parlamentu-konposizioen bidez egingo dela bermatzea, horrela herri subiranoaren borondatea islatuz. Hala eta guztiz ere, eguneratuagoa den adibide bat ezartzearen, Diputatuen Kongresuak aukeratutako Auzitegiko azken lau magistratuek 2021eko azaroaren 18an hartu zuten kargua, berritzeko ezarritako datarekin alderatuta ia bi urteko atzerapenarekin. Beraz, agindu hori garaiz ez betetzea Konstituzioaren Testu Nagusiak galdatzen duen eskakizun esplizitu baten aurkako eraso larria da.

Hutsune horiei aurre egiteko asmoz, KALOn 16. artikulua erreforma bat egin zen magistratuen herenak berritzeko atzerapena badago, izendatuak izan diren magistratu berriei agintalditik kenduko zaie berritzearen atzerapen-denbora ezartzen duen atal berri bat gehituz. Hala ere, paradoxikotzat hartzen da neurri horrek izendapenen atzerapena ez konpontzea baizik eta haiek sustatzea, interes politikoei dagokienean. Beraz, erreforma horren itxurazko helburua izango litzateke, teoriarik behintzat, etorkizuneko osadera baten agintaldia murriztea, talde parlamentario jakin baten aldekoa ez bada. Baina, horrek esan nahi duena zera da, magistratu berriei beren jurisdikzio-lanaren denbora murrizteko zehapena ezartzen zaie, eta hori ganberek data horretan egindako izendapena ez betetzei baino ezin zaio egotzi.

Era berean, atzerapen hauek direla eta, lege-erreforma bat ere egin da presidentearen eta presidenteordearen agintaldiak luzatzei dagokionez. Hasiera batean, KALOk ez zuen esplizituki adierazten ohiko jardunbidea zena: presidentea eta lehendakariordea aukeratzea bat zetorren Auzitegiaren herenak berritzearekin, eta horrek erraztu egiten zuen hiru urteko agintaldia betetzea, KALOn ezartzen den bezala.

Magistratuen berritzean izandako etengabeko atzerapenaren ondorioz, 16.3 artikulua gehitu da. Horren arabera, presidentea eta presidenteordea izendatu ziren hiru urteko agintaldia ez badator bat KALOn berritzearekin. Beste hitzetan, bederatzi urterako

izendatuko dira Konstituzio Auzitegiko magistratuak, eta hiru urtez behin herenka berrituko da Auzitegia. Une horretatik aurrera aukeratuko dira presidentea eta presidenteordea, KALOk 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Presidenteari eta presidenteordeari emandako hiru urteko agintaldia eta Konstituzio Auzitegiaren berritze-aldia batera ez badatoz, luzatu egingo da haien agintaldia, aipaturiko berritzea gertatzearekin eta magistratu berrien kargu-hartzearekin batera amai dadin.

Erreforma horrekin, legegileak, hau da, KAKo magistratuak aukeratzeko ardura duten diputatu eta senatari berberen gehiengo kualifikatuak, inplizituki onartzen dute ez dutela beteko Konstituzioak horretarako ezarritako epea. Anomalia horri lege-irtenbidea eman beharrean, erantzukizunik ez izateak ekar ditzakeen arazoei aurrea hartzen diete.¹⁴¹.

5. ONDORIOAK

Arestian aipaturiko guztia aintzat hartuz, jarraian Gradu Amaierako Lan honi bukaera emateko ondorio eta proposamen batzuk planteatuko dira. Hala, lehenengo atalean, sarreran alegia, aipatu diren helburu, xede eta premisak bete diren ala ez zehaztuko da.

Lehenengoa: HAUTAKETA-SISTEMAN ESTATUKO HIRU BOTEREK GARRANTZIA DUTE.

Lan honetan planteaturiko kritiketako bat espainiar ordenamendu juridikoak aurreikusten duen magistratuen hautaketa-sisteman Estatuko hiru botereen esku-hartzea da, batez ere, botere legegileari dagokionean. Legegilearen nagusitasun horrek ez da zertan negatibotzat jo behar KAKen interpretazio konstituzionalaren funtzioa egikaritzeko orduan. Izan ere, gizartearen borondatea hobeto islatzeko aukera ematen du, legegilea delarik horretarako organorik egokiena.

Aitzitik, hautaketa-sisteman botere legegileak duen presentzia gehiegizkoa dela ere esan genezake. Are gehiago, baieztatu daiteke KAKen politizazioa badela, eta, magistratuen independentzia eta autonomia lortzeko berme formalak asko izanik ere, zaila baita

¹⁴¹VIDAL FUEYO, *op. cit.*, 35. or.

horiek materialki egokitasunez aplikatzea. Alderdi politikoek haien interesen alde burutu dezaketen azpi-banaketaren praktika desegokiak, KAren magistratuen (eta haiek harturiko erabakien) politizazioa sustatzen dela aditzera eramán gaitzake. Jakina denez, Auzitegiak politizaturik dauden gaien inguruko erabaki asko eman behar ditu baina, ikuspuntu juridiko batetik (eta ez ditu beraz, bere funtzioak egikaritu behar bigarren parlamentu bat balitz bezala).

Horren harira, Trantsizioaren garatik hona, Espainian indarrean dagoen erregimen juridikoak biltzen dituen organo konstituzionalen egitekoen eta funtzionamendu arrunten balioa ahuldu dela pentsa daiteke, pairatzen ari diren egoera politiko nahasi eta ezegonkorrak zuzenean eragiten baitiote. Gauzak horrela, azpi-banaketaren praktika honek KAren politizazioa, sinesgarritasun eta legitimitate falta eta haren epaien devaluazioa dakar ondorio gisa.

Bigarrena: KONSTITUZIO AUZITEGIKO MAGISTRATUEN HAUTAKETA-SISTEMAREN DISEINUA TALKA EGITEN DU AUTONOMIA ESTATUAREN EREDUAREKIN.

Jakina denez, konstituziogileak ezarri zuen diseinuaren arabera, estatu konposatuén kategorian aurkitzen da espainiar Estatuá; alegia, botere politikoa banatuta dago botere legegile eta botere exekutiboén planoan. Hala, estatu unitario eta federalen erdibideko diseinu bat ezarri zen. Hori dela eta, *Autonomien Estatuá* delakoaz hitz egiten da, Espainia AAEEz osaturiko estatu deszentralizatu bat delarik.

Modu honetan, nazio ezberdinek maila nabariago edo baxuagoan lurralde-ordezkaritza bat beharko lukete Estatuko organo konstituzional ezberdinetan, KA horietako bat delarik. Abstraktuki bada ere, 6/2007 Lege Organikoak KALoren 16.1 eta 16.3 artikuluan txertatu zuen berrikuntza, AAEEen lurralde-ordezkaritzaren aldekoa zen. Baina, gerora KAE 49/2008 eta 101/2008 ezarri zutenaren arabera, formalismo hutsean gelditu ziren proposamen hauek; izan ere, Senatuaren autonomia maila ez mugatzeko, AAEEtako parlamentuen proposamenak lotesleak ez izatea erabaki zuen KA berak.

Beraz, ondorioztatu, eta kuestionatu, daitekeena zera da, KAren AAEEren isla falta KAren konposizio organiko eta ordenamendu juridikoak aurreikusten duen hautaketa-sisteman.

Hirugarrena: KONSTITUZIO AUZITEGIAREN BERRITZEAN ATZERAPENAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN JARDUNAREN PARALISIA DAKAR.

Ikusi denez, Espainian organo konstituzionalen *prorrogatio* delakoa asko praktikatzen den kontzeptu bat da, hau da, KAren berritzean, beste erakunde batzuen antzera, atzerapena ematen da. Horietako organo askoren hautaketaren zati bat, Gorte Nagusien eskuetan dago, Testu Konstituzionalak aurreikusten eta aitortzen duen moduan. Hala, egun politikoki bizitzen ari garen egoera nahasi eta deseroso honek zuzeneko eragina du haien jardunean eta, diputatu eta senatarien arteko liskar eta desadostasunek eragin zuzena dute praktika honi dagokionean.

Hori horrela, KAren magistratuen hautaketaren atzerapenak AAEEetako funtzionamendu arruntean eragin zuzena du; izan ere, EK-k jasotzen duen moduan, Gobernuaren eskutik, lege eta lege indarra duten xedapen autonomikoen paralizazioa ematea posible da, Auzitegiak horiek EKren aldekoak ala aurkakoak diren iritzi bitartean eta honek luzerako jo dezake, haren eraketa definiturik ez dagoen heinean.

Gaur egun, ez da inolako bide prozesalik aurreikusten prozesu hori arindu ahal izateko. Hori dela eta, abstraktuki bada ere, aukeraketa prozesuan erantzukizuna dutenentzat prozesu hau azkartzeko zeharkako bide batzuk aurreikustea legoke, zehapen batzuk bezala. Hauek ezartzen ez diren bitartean, edo, orokorrean zerbait egiten ez den bitartean, oso zaila litzateke blokeoa kentzea. Baina, proposamen edo irtenbide hau utopikoa litzateke diputatu eta senatariak baitira hura onartu behar dutenak.

Laugarrena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENEN HIGADURA KONSTITUZIO AUZITEGIAREN JARDUNAREN ONDORIO BEZALA.

Urteetan zehar luzatzen ari den Estatuaren eta EA Eren eskuduntzen transferentziarekin arazoak eragin handia du KAren jardunean. Izan ere, bien arteko gatazkak konpontzeko konpetentzia duen erakundea da aztergai duguna; hala, etengabeko liskarrak eta desadostasunak eta, gerora, Auzitegiak ematen dituen sententziak, ikuspegi zentralistegia izan dezakete.

Hori dela eta, urtetan zehar KAK ezarri duen doktrina konstituzionalak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzen higadura dakarrela esan daiteke. Hori dela eta, Espainia estatu konposatu eta deszentralizatu bat den heinean, KAK ikuspegi autonomikoago bat izatea beharrezkoa dela irizten da, Estatuaren organo ordezkari bat baita.

Azkena: KONSTITUZIO AUZITEGIAREN KIDE-KOPURUAREN ALDAKETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN PARTE-HARTZEAREN AUKERA BEZALA.

Aurreko ondorioarekin loturik, KA osatzen duten kide-kopurutik bi ondorio atera daitezke. Lehenik eta behin, aspektu orokor gisa, Auzitegia osatzen duten magistratuen kopurua bikoitia izateak arazo ugari ekar ditzake. Ikusi denez, berdinketa kasuan, presidenteak haren kalitatezko botoa erabiltzeko aukera izango du eta, horrek haien arteko ezberdintasunak sor ditzake. Ildo honetatik, bi dira planteatzen diren soluzio posibleak: alde batetik, EKren eta, ondorioz, KAL Oren erreforma bat non, KA eratzen duten magistratuen kopurua bakoitia den. Puntu honetan, aipatzekoa da, hasiera batean, eztabaida konstituziogilean, Senatuari hiru hautagai proposatzeko ahalmena aitortuko zitzaiola; beraz, hamaika magistratuk osatuko zuten Auzitegia. Beste alde batetik, ordea, zenbait herrialdeetako KAtan jarraitzen den prozedura ezartzea ere planteatu liteke; zehazki, lege edo lege indarra duen arau baten konstituziokoztasunaren eztabaidan berdinketa emango balitz, hori ezingo litzateke ordenamendu juridikotik atera. Herrialde batzuetan, hala nola Alemanian, KAK kasu batean adostasuna lortu ezin duenean eta bozketan berdinketa dagoenean, aurkaratutako araua ez da ordenamendu juridikotik kanporatutzat joko. Horren ordez, arauak indarrean jarraitzen du. Ikuspegi hori ezarritako eskubideari eusteko printzipioan oinarritzen da, eta printzipio horren arabera, arauak lehentasuna izan behar du haren aurkako gehiengo argirik ez badago.

AAEEi dagokienean, ordea, gaur egungo KAK hautateta-sisteman duten esku-hartzea eskasa dela ondoriozta daiteke, 2007ko erreforma hankamotz gelditu baita. Hala, proposatzen da, aurrez aipatu den erreforma konstituzional baten bidez, magistratuen kopuru bakoitia ezartzea, baina berezitasun batekin: horiek AAEEK zuzenean aukeratzea. Esate baterako, Italiaren kasuan bezala, hamabost epailek osatu dezakete KA; falta diren hiru horiek, AAEEtatik eratorriko litekeelarik. Modu honetan, haien parte-hartzea nahitaez egikarituko eta bermatuko litzateke.

Doktrina

AGUIAR DE LUQUE, Luís, “Una nueva reflexión sobre la *prorogatio* de los órganos constitucionales. Una discrepancia y algunas puntualizaciones a J.A. Santamaría”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 85. zk., urtarrila-apirila, 2009, 83-98 or.

ALMAGRO NOSETE, José, SAAVEDRA GALLO, Pablo, Justicia constitucional: (comentarios a la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional), Tirant lo Blanch, 2 ed., Valentzia, 1989, 730. or.

ÁLVAREZ RUBIO, Juan José., “La relación del País Vasco con España en materia de estructuras normativa y gobernanza. De la LOAPA a la relectura constitucional. El binomio derecho y política”, GOIRIZELAIA ORDORIKA, Iñaki, ZELAIA GARAGARZA, Maite (Zuz.), *¿Tiene coste para el País Vasco su dependencia de España? Algunas claves de la relación entre el País Vasco y España, Ba al du Euskadirentzat kosturik Espainiarekiko duen dependentziarik? Euskadi eta Espainiaren arteko harremanaren gako batzuk*, Dykinson S.L., Euskadi, 2018.

ARCE JANÁROZ, Alberto, REQUEJO PAGÉS, Juan Luís. (Zuz.), Comentarios a la Ley Órgánica del Tribunal Constitucional, Konstituzio Auzitegia, Estatuko Boletín Ofiziala, 2001, 1557. or

ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL, *El Estado autonómico, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional*, CEPC, Madril, 2006.

El futuro de la justicia constitucional, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2007.

CASTELLÀ ANDREU, Josep Maria, “La diferente posición del Estado y las Comunidades Autónomas ante Tribunal Constitucional”, GARCÍA HERRERA, Miguel

Ángel (Zuz.), *Constitución y democracia: 25 años de Constitución democrática en España*, Bilbo, 2005, 537. or. e.o.

CAMACHO GARCÍA, Alicia, SOUTO GALVÁN, Marta, “Jurisprudencia constitucional sobre el Estado Autonómico (julio de 2014-julio de 2015)”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Democracia constitucional y diversidad cultural*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2017, 151-226 or.

DESDENTADO DAROCA, E., “El control de constitucionalidad en procesos de contenido competencial”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Tribunal Constitucional y diálogo entre tribunales*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2013, 253. or.

DÍAZ REVORIO, Francisco Javier, “El Tribunal Constitucional (I). Composición y Organización”, LÓPEZ GUERRA, Luís, ESPÍN TEMPLADO, Eduardo. (Zuz.), *Manual de Derecho Constitucional, Volumen II, La Organización de los Poderes, Estado y Comunidades Autónomas*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2022, 205-220 or.

EGILE ASKO, *La erosión silenciosa*, Eusko Jaurlaritz. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (Zuz.), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Euskadi, 2021.

ESTRADA MARTÍN, José Antonio, *La designación de los magistrados del Tribunal Constitucional en España. Una perspectiva orgánica y empírica*, Doktorego tesia, Carlos III Unibertsitatea, 2014, 138. or.

FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco, “Artículo 159. La composición del Tribunal Constitucional”, ALZAGA VILLAAMIL, Óscar, (Zuz.), *Comentarios a la Constitución Española de 1978*, Gorte Nagusiak, Edersa, Madrid, 1996-1999, XII. Titulu, 61-171 or.

FERNÁNDEZ SEGADO, Francisco, “Reflexiones en torno a la composición del Tribunal Constitucional en España”, *Thémis*, 26. zk., 1993, 15-28 or.

FOSSAS ESPADALER, Enric, “Titulo IX, del Tribunal Constitucional, Artículo 159”, PÉREZ TREMPES, Pablo, SAIZ ARNAIZ, Alejandro (Zuz.), *Comentario a la Constitución Española, 40 aniversario, Tomo II (artículo 97 a disposición final)*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018, 2157-2165 or.

GARCÍA-CUEVAS ROQUE, Elena, “Algunas reflexiones en torno al Tribunal de Garantías Constitucionales de la Segunda República Española”, *Codex. Anuario de Ciencias Histórico-Jurídicas*, 1. zk., 2004, 125-167 or.

GARCÍA-PELAYO ALONSO, Manuel, "El “status” del Tribunal Constitucional", *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1. zk., 1981, 11-34 or.

GARCÍA ROCA, Javier, “La jurisdicción constitucional”, *Lecciones de Derecho Constitucional*, Civitas, Nafarroa, 2023, 195-226 or.

GARRIDO FALLA, Fernando, “Artículo 159”, *Comentarios a la Constitución*, Civitas, 3. ed., Madril, 2001, 2651-2659 or.ç

HUELIN MARTÍNEZ DE VELASCO, J., “El dialogo entre el Tribunal Constitucional y el Tribunal Supremo: Una plática abierta a otros contertulios”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Tribunal Constitucional y diálogo entre tribunales*, Cuadernos y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2013, 211. or.

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki, “Euskal Herriko lurraldeen arteko eskumenen eta harremanen araubide juridikoa. Konstituzioa, estatutuak, Konstituzio Auzitegia: horien egitekoa eskumen banaketan”, *Zuzenbide Publikoa Euskal Herrian*, Lete Argitaletxea-HAEE/IVAP, Bilbo, 2017.

LURRALDE ADMINISTRAZIOARAKO MINISTERITZA, *Jurisprudencia constitucional en materia de autonomías territoriales*, Idazkaritza Tekniko Nagusia, Madril, 1983.

PÉREZ TREMPES, Pablo, “Tribunal Constitucional y Poder Judicial”, *Teoría y Realidad Constitucional*, 8-9. zk., 2001-2002, 1-33 or.

RODRÍGUEZ-PATRÓN RODRÍGUEZ, Patricia, “El Tribunal Constitucional ante la reciente reforma de los artículos 16 de su Ley Orgánica y 184 del Reglamento del Senado”, *Revista de Derecho Político*, 77 zk., 2010, 107-140 or.

SALAS HERNÁNDEZ, Javier, “El Tribunal Constitucional español y su competencia desde la perspectiva de la forma de gobierno sus relaciones con los poderes legislativo, ejecutivo y judicial”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 6 zk., CEPC, iraila-abendua, 1982, 141-177 or.

SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, “La deseable composición paritaria del Tribunal Constitucional: una propuesta de reforma constitucional”, UNED, *Revista de Derecho Político*, 101. zk., urtarrila-apirila, 2018, 741-774 or.

SÁNCHEZ BARRILAO, Juan Francisco, “La participación de las comunidades autónomas en la elección por el Senado de los Magistrados Constitucionales”, UNED, *Teoría y Realidad Constitucional*, 23. zk., 2009, 387-424 or.

SANTAMARÍA PASTOR, Juan Alfonso, “La *prorogatio* de los órganos constitucionales. Apuntes mínimos sobre un tema que no lo es”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 84. zk., 2008, 11-26. or.

SANTAOLALLA LÓPEZ, Fernando, “El voto de calidad del Presidente del Tribunal Constitucional”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 85 zk., 2009, 201-211. or.

TORNOS MAS, J., “La construcción del Estado autonómico”, ASOCIACIÓN DE LETRADOS DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL (Zuz.), *Cuatro décadas de jurisprudencia constitucional: los retos*, Foros y Debates, Tribunal Constitucional, CEPC, Madril, 2020, 193. or.

URÍAS MARTÍNEZ, Joaquín Pablo, “El Tribunal Constitucional ante la participación autonómica en el nombramiento de sus miembros”, *Revista d'estudis autonòmics i federals*, 10. zk., 2010, 207-244 or.

VIDAL FUEYO, María del Camino, *El Tribunal Constitucional*, Marcial Pons, Madrid, 2022.

VILLAGRASA CID, María Blanca, “La normativa seguida por los Parlamentos autonómicos para presentar candidatos a magistrados del Tribunal Constitucional ante el Senado”, *Revista Parlamentaria de la Asamblea de Madrid aldizkaria*, 2006, 397-422. or.

Araudia

Espainiako Konstituzioa (EBO 311 zkia, 1978ko abenduaren 29koa).

Lege Organikoa 2/1979, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa (EBO 239 zkia., 1979ko urriaren 5koa).

Lege Organikoa, 3/1979, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa (EBO 306 zkia., 1979ko abenduaren 22koa).

Ebazpena, 1982ko otsailaren 24koa, Diputatuen Kongresuaren erregelamendu berriari buruzkoa (EBO 55 zkia., 1982ko martxoaren 5koa).

Lege Organikoa 6/1985, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa (EBO 157 zk., 1985eko uztailaren 2koa).

Senatuko Erregelamenduaren Testu Bateratua, Senatuko Mahaiak onartua, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, 1994ko maiatzaren 3ko bileran (EBO 114 zkia., 1994ko maiatzaren 13koa).

Lege Organikoa 6/2006, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutuaren erreformari buruzkoa (EBO 172 zkia., 2006ko uztailaren 20koa).

Lege Organikoa 6/2007, maiatzaren 24koa, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa erreformari buruzkoa (EBO 125 zkia., 2007ko maiatzaren 24koa).

Jurisprudentzia

1992ko otsailaren 6ko 13/1992 KAE, EBO 54 zkia., 1992ko martxoaren 3a.

2008ko apirilaren 9ko 49/2008 KAE, EBO 117 zkia., 2008ko maiatzaren 14koa.

2008ko uztailaren 24ko 101/2008 KAE, EBO 200 zkia., 2008ko abuztuaren 19koa.

2010ko ekainak 28ko 13/1992 KAE, EBO 172 zkia., 2010ko uztailaren 16a.

Webguneak

DIPUTATUEN KONGRESUA, “Espainiako 1978ko Konstituzioaren 159. artikulua sinopsia”, 2003ko abendua (2011 eta 2016an eguneratua), <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=159&tipo=2> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

KONSTITUZIO AUZITEGIA, “Composición, Organización y Competencias del Tribunal Constitucional”, 2024ko urtarrilaren 25a, <https://www.tribunalconstitucional.es/eu/tribunal/Composicion-Organizacion/Paginas/default.aspx> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].

KONSTITUZIO AUZITEGIA, “El Tribunal de Garantías Constitucionales de la II República Española”, (2016an eguneratua), <https://www.tribunalconstitucional.es/es/tribunal/historia/paginas/tribunal-de-garantias-constitucionales.aspx> [azken kontsulta: 2024ko maiatzaren 13an].